

Berritasun
ugarirekin
datoz
Bergarako San
Martin jaiak | 13

MU saskibalo
taldeak Euskal
Kopa hasiko du
zapatuan,
Iturripen | 12

60 urte bete ditu pasiotarrek Euban
zabaldutako ikastetxeak | 9



'2057. Odisea bat kanposantuan'
filma bukatzeaz dute Oñatin | 16



Merezitako omenaldia etxeko lau
artistari Gandiagan | 25



GUINNESS ERREKORRA BIRRINDU DU!

Manuel Scheidegger suitzarrak gurpil bakarraren gainean zuen marka ondu du Markel Uriartek | 24

Markel Uriarte Anoetako belodromoan atzo,
eguaztena, Guinness errekorra lortu izana ospatzen.

ARITZ GORDO

Duela 100.000
urteko
aztarnategia
ikertu dute | 2

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 7 | HERRIAK 9
KIROLA 23 | KULTURA 25
ZURE IRAGARKIAK 26 | ZORION AGURRAK 27
TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29 |
ESKELAK 29 | NON-ZER 30

Hauteskundeei begira hainbat gako

Sei esparrutako eragileek duten ikuspuntua partekatu dute | 3

SINADURAK

	IÑAKI CASAS 7
	7 LEIRE KORTABARRIA
	NEREA MAKAZAGA 11
	14 SAIOA GARITANO
	MIEL GURIDI 17
	21 XABI IGOA
	ANDER ETXEBERRIA 32

puntua

ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Marino Lejarreta ziklista ohiari elkarrizketa
- Legebiltzarkide izan diren debagoiendarrak

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

INAUGURAZIOA
Irailak 15 (19:00)
luntx eder bat eta 100 eguzkitako
betaurreko zozketatuko ditugu

Eskerrik asko 50 urte hauengatik!

www.multiopticasgipuzkoa.com

KOKALEKU BERRIA > Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95 • ARRASATE

MULTIOPTICAS
lehen zerbitsu optikoetan

Aitziber Suarez | Arkeologoa

"Ez nuen halako aztarnategi bat aurkitzerik espero; sorpresa handia izan da"

- Duela 100.000 urteko aztarnategia ikertu dute
- Goi pleistozenoko fauna nolakoa den erakusten du

MIREN ARREGI | ARRASATE

Duela 100.000 urteko ezohiko aztarnategi paleontologikoa aurkitu dute Arrasaten, eta aztarnategia ikertzen diharduen EHUko taldeko Aitziber Suarez Bilbaorekin izan gara.

Tesia egiten ari zara Kobate Harrobiko Artazu VII aztarnategian.

Industen aritu ginen 2013an eta ordutik bertan aurkitutakoa aztertzen ari naiz unibertsitatean.

Harrobiko langileek aurkitu zuten aztarnategia.

Lanean ari zirela ikusi zuten bertan aztarnategia zegoela eta lanak gelditu zituzten guk industu genezan. Aztarnategia guztiz industu genuen eta dagoeneko ez da existitzen. Harrobiko lanek desagerrarazi zuten.

Oso gutxi omen dira horrelakoak

Kantauriar eskualdean eta baita Iberiar penintsulan ere. Zergatik da garrantzitsu?

Oso aztarnategi berezi eta ezohikoa da hainbat arrazoiengatik. Batetik, pleistozenokoa da, duela 100.000 urtekoa. Bestetik, gizakia- ren aktibitatearen aztarnarik ez dago eta horrek esan gura du bertan dagoen fauna inguruan zegoen fauna dela. Hau da, harra- pariek ez zuten ehiza aukeratzeko; beraz, fauna naturala da. Gainontzeko aztarnategietan gertatzen da gizakiak harrapatutako fauna agertzen dela eta horrek esan gura du aukeratutako fauna dela. Beste aztarnategietan, esaterako, oso zaila da lehoia agertzea, gizakiak ez zuelako ehizatzen, hemen, aldiz, agertu dira. Beste arrazoi bat da sima bat dela. Sima bat koba ber-

tikal bat da. Animaliak bertatik pasatzen ziren eta han hiltzen ziren. Tranpa natural moduko bat izan zen bere garaian.

Ze aurkitu da?

Haitzuloko lehoia (Panthera Speleae) eta lehoinabarra (Panthera pardus) agertu dira haragijaleen artean eta estepako bisontea (Bison priscus) eta orein arrunta (Cervus elaphus) ungulatuen artean, besteak beste. Milaka hezur aurkitu ditugu, ez dakigu zenbat-zehatz. Oraindik kontatzen ari gara.

Zein egoeratan?

Oso kontserbazio egoera onean, eta asko konexio anatomikoan. Horrek esan gura du jausi eta berehala hil zirela. Hezurak ez direla sakabanatu, alegia, ez direla hezurak euren artean nahastu. **Ikerketa bukatuta dago?**

Ezta gutxiago ere. Orain publikatu ditugunak dira ondorio orokor- rrak. Orain ari gara zehaztasunak ikertzen.

Zer, esaterako?

Hezurak banan-banan kontatzen ari gara, paleoingurumen lan zehatz bat egiteko, alegia, klima



Aitziber Suarez Bilbao arkeologoa. | GOIENA

nolakoa zen eta nolako aldaketak egon ziren jakiteko. Gutxi gorabehera, badakigu inguruan basoa zegoela eta tenperaturak nahiko altuak zirela, gaur egungoaren antzekoak zirela, alegia.

Zerk ematen dizue informazio hori?

"Isotopo analisiak egin gura ditugu paleodietak jakiteko"

Batez ere, mikrougaztunek. Oso azkar eboluzionatzen dute ingurumen aldaketekiko eta horiek dira informazio gehien ematen dutenak. Isotopo analisiak ere egin gura ditugu, paleodietak jakiteko. Inguruko landaredia eta flora zer-nolakoa zen jakiteko. Hau da, animaliek zer jaten zuten jakiteko. Ikerketa hori oraindik ez dugu hasi, baina egingo dugu. **Pozik ikerketarekin?** Oso pozik. Egia esan, ez nuen halako aztarnategi bat aurkitzerik espero. Sorpresa handia izan da.

aek euskara praktikoa

%100 AFEKTIBOA

Eman izena

Debagoieneko AEK

Matrikulazioa zabalik irailaren 30era arte.

Euskara maila guztiak.

Garibai 14 - 943 77 03 69

arrasate@aec.eus

DIRU-LAGUNTZAK

Udalaren laguntzarekin.

Eman diote hasiera 2016-2017 ikasturteari Debagoieneko ikastetxeetan

8.300 ikasle inguru izango dira, denera, hasi berri den ikasturtean; zentro guztiek zabaldu dituzte dagoeneko ateak

M.T./M.A | ARRASATE

Aste honetan ekin diote 2016-2017 ikasturteari Debagoieneko ikastetxeetan. Haur Hezkuntzatik Lanbide Heziketara, zortzi mila ikasle baino gehiago matri-

kulatu dira aurten eskualdeko ikastetxeetan.

Denak lanean

Oñatiko Txantxiku ikastolak edota Bergarako Mariaren Lagun-

diak martitzenean zabaldu dituzte ateak. Zentro gehienek, hala ere, eguaztenean ekin diote ikasturteari, edo, bestela, gaur, egue- na, hasi dituzte eskolak; Esko- riatzako Luis Ezeizaren edota Angiozarko herri eskolaren kasuan bezala.

8.300 ikasle

Zortzi mila eta hirurehun ikasle inguru izango dira, denera, gure bailaran hasi berri den ikasturte honetan.

Aipatutako ikasle horietatik erdiak baino gehiagok, lau mila eta bostehunek, hezkuntza kontzertatuko ikastetxeetan egingo dituzte euren heziketak, eta gainontzekoek, berriz, hiru mila eta laurehun inguruk, hezkuntza publikoaren sareko ikastetxeetan.



Ikasleak gelan. | MIREN ARREGI

Zer dago jokoan irailaren 25ean?

Gizarteko esparru esanguratsuenetako lehentasunak partekatu dituzte sei eragilek

UBANE MADERA | DEBAGOIENA
Irailaren 25eko hauteskundeetako emaitzek Eusko Legebiltzarrean indar politiko bakar bati gehien-go garbia, eta, zer esanik ez, erabateko gehiengoa ematea nekeza izango da oraingo honetan. Jokoan da, baita ere, oposizioako ahots nagusia zeinek izango duen.

Elkarrekin-Podemos koalizioaren presentziak eta hautagaitza horren aldaerak Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan erdietsitako emaitzek erakutsi

zuten moduan (bototan lehen indarra izatea lortu zuen EAEn eta Debagoienean, berriz, hiru-garrena, baina EH Bildurekiko zein EAJrekiko oso gertu), mapa politiko berria gauzatuko da hauteskundeen ondoren Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hala, legealdirako itunak, gai jakinekiko akordioak, oposizioaren jarduteko modu berriak... gailentzeko aukerak nabarmenak izango dira hautetsontziekiko iraileko zitaren ondoren.

Behar berriak
Edozein modutan, balizko batasun horiek guztiak baldintzatuta izango dira kanpainen bertan zein hauteskundeen ondoren indar politikoei mahai gainean jarriko dituzten lehentasunen eta eskaintzen arabera.

Izan ere, mapa politikoa aldatu den moduan, azken lau urteotan nabarmen aldatu dira euskal gizartearen osatzen duten komunitateen lehentasunak eta beharrak. Krisi ekonomikoak ekarri dituen

errealitate berriak, langabezia tasaren handitzea, erabakitze eskubidearen aitortzearen aldarrikapena, elkarbizitzarako prozesua, abertzaletasuna, LOMCE-ren aplikazioa, BEZaren igoerak, oro har, eta, bereziki, hainbat esparrutan izan duen eragina... alderdi politikoei gai horiekin guztiarekin izango duten planteamendua zein jokabidea erabakigarria izango da etorkizuneko Eusko Legebiltzarraren erretratua egiteko.

Esparru nagusiak
Hori horrela, gizarteko sei arlo esanguratsutan eragile edo aditu diren beste horrenbeste pertsonak euren arloetan ikusten dituzten lehentasunekiko duten ikuspegia partekatu dute GOIENA paperekoan, sortuko den gobernu berriari begira. Euskadiren estatus politikoa, ingurumena, euskalgintza, hezkuntza, ekonomia eta kultura mahai gainean jarrita, oro har, aldaketa beharra sumatzen dute guztiek ere.

					
JUANJO ALVAREZ EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO KATEDRADUNA	NEREA LAZPIUR ARRASATEKO UDALEKO GARAPEN IRAUNKORREKO TEKNIKARIA	EÑAUT MUXIKA ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN ELKARTEKO LEHENDAKARIA	BIXENTE ATXA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA	JOSEBA SAGASTIGORDIA GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOKO ZUZENDARIA	MARIJE UGALDE BERGARAKO MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA
"Euskadiren estatus politikoa da, duda barik, gakoa"	"Eredu energetikoari buelta ematea da gakoa"	"Hizkuntzei balioa emango dietenak behar ditugu"	"Jokoan da globalki lehiatuko duen ekonomia sendotzea"	"Norbaiten mesedetan, edo olatuak mugitzen?"	"Hezkuntza kulturean gehiago inbertitu behar da"
"Erabakitze eskubidea onartu eta bultzatzen duten hiru ikuspegi politikoren presentziak (EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta Ganberan hiruren baturak erabateko gehiengoa izango duenak ahalbidetzen du premisa hau bete ahal izatea: euskal gizartearen erabakitze eskubidea batasun puntua izan behar da. Inposizioen gainetik eraiki eta lan egin behar da, serio, argudioekin. Eztabaida politikoa izango da gai hori apurketarako estrategia modura planteatu gura duenik. Batzuen dako, edozein aurrerapauso edo sakontze "subiranotasun abentura" izango da; beste batzuen dako, garrantzi bako lore-jokoak besterik ez. Adostasun zabala lortzeko gakoa da metodologia, aurrerapausoak adostea eta definitzea estatus politikoa berria mugatzeko norantz jo. Birplanteatu beharreko gaiak asko dira: identitatea, lurraldetasuna, subjektu politikoa, Espainiako Estatuarekiko, Frantziarekiko eta Europarekiko elkarbizitza, subiranotasuna, independentzia. Desadostasuna zentratu behar da Euskadiren aitortza identitarioan, nazio bezala, benetako demokrazia plurinazionala ezartzeko ikuskera fagozitatzaile estatalistaren aurrean".	"Ekonomia ereduak eta ekoizpen sistemak baldintzatzen du baliabide naturalen kontsumoa. Ingurumenaren gain jarri dugu izugarrizko presioa. Baina, sistemak aldaketa eskatzen du. Ingurumen politikak txertatu behar dira esparru guztietan, eta konpromisoak praktikan jarri. Klima aldaketaren eragina murriztu nahi bada, berotegi efektua eragiten duten gasak gutxitu behar dira. Sektore elektrikoak da gasen emisioen erantzule nagusia. Beraz, eredu energetikoari buelta eman behar zaio, energia berriztagarrien alde eginez. Baina urteotan ikusi dugu energia berriztagarrien sektorearen estimulu falta. Neurri asko hartu dira estatuan energia berriztagarriak ekoiztea ekonomikoki bideragarri ez izatea eragin dutenak. Ondorioz, inbertsioek ihes egin eta sektoreak atzera egin du. Baina berriztagarrien sektoreak gaur egun beste energia iturriek baino gehiago ekoizten du eta ahalmena dauka merkatuko elektrizitate-eskaria asetzeko. Iraunkortasunaren eta ingurumenaren aldeko apustua nahi bada, efektuak ezagututa, haizea, ura eta eguzkia izanda, zertarako erreaktatu eta gasa? Eta noski, nuklearrik, ez, eskerrik asko".	"Begira diezaiogun gure historiari: frankismoaren garaian estrategia bateratu bat izan zen kultura bakarra hedatzeko Espainiako Estatu osoan. Horren adibide ditugu azkenaldian berrietan izan ditugun Sanjurjoren hitzak. Garai honek kalte handia eragin zion gure buruarekiko errespetuari; zoritxarrez, euskara bigarren mailako hizkuntza zela erakutsi zieten gure arbaso gehienei. Geroztik izan ditugun herri mugimenduek, eragileek eta gobernuek euskararen ezagutza eta erabilera hedatzeko ahalegin itzela egin zuten, baina gaur egun badirodi nolabaiteko geldialdi batera iritsi garela. Oraindik euskara eremu askotan ez da lehen mailako hizkuntza, ez ditugu gureak diren hizkuntzak balioesten. Gaur egun ditugun inguruneen gehiengo handia erdalduna da, eta hauek ez diote euskarari inolako baliorik eskaintzen. Hori da beharrezko duguna, hizkuntzei bere balioa emango dieten pertsonak, bai etxean, kalean, komunikabideetan, kulturean, lanean, zerbitzuetan zein gobernuan. Eta horixe da jokoan dagoena, errespetua".	"Ekonomia honetan baliabide garrantzitsuena pertsonak izango dira eta gure erronka Europako edo munduko gazte jantzien heziketa dituen hezkuntza eta unibertsitate eredu onena izatea da. Eta ezinbestekoa da hori posible dela sinestea. Hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza egin behar den inbertsioak ez du alderdi politikoez ez esparru publiko edo pribatuez ulertzen. Nire esperantza irailaren 25eko emaitzek alderdi politikoei hezkuntza, ikerketa eta berrikuntzaren aldeko hitzarmen bat sinatzeko aukera ematea da. Gure erronkarik handiena demografia da, talentu gaztea sortu behar dugu, lehenik eta behin, hemengoa eta kanpoko talentua erakartzeko gai bagara, hobeto. Kalitate altuko oinarritzko hezkuntza, heziketa profesional eta unibertsitarioa ditugu, ikastetxe eta unibertsitate publiko eta ez publikoekin; gure kasuan, kooperatiba. Gure eztabaida partekatzen ditugun helburuetan kokatzea nahi nuke, eta ez ereduetan. Ez badugu elkarrekin aurrera egiten eta guztiok hobetzen, ondorioak Euskadik eta bertako pertsonen jasan beharko dituzte".	"Ekonomia ez da dirua bakarrik, gogo-aldartearen bada; herri serioa gara, dinamikoa, izualdi bakoa, kudeatzen dugu etengabe medioetan egon barik –zarata ateratzeke–, baina horrek ez du ziurtatzen adierazle sozioekonomikoak bila gabiltzan ongizate horri bideratuta daudenik. Hasi gara ikusten zela BPG eta langabezia moduko bi adierazle badabiltzan krisi hasierako norabidea hartzen, eta zela produktzio industrialari lotutako adierazle jakin batzuek bultzatzen dituen bi adierazle baina adi, susperraldi ekonomikoak eta gure industriari ematen zaion bultzada oraindik krisi garai betekoak dira, beldurrez gaude, eta zuhurtziaren diskurtsopena. Herri proiektu mailan berba egiteak, erronkak identifikatzeak eta adostek, ekintza-plana bultzatzeak gogo-aldartearen eragiten duten elementu ilusionanteak dira. 1-25ean gobernu berria osatuko da, baditugu adibide argiak esaten dutenak zer ez den egin behar zenbakiak bat ez datozenean, eta, olatuak mugitzen jarraitu nahi dugula badakigunez, kolaborazioa eta kolaborazioa, ez dago besterik; baliozta ditzagun erronkak eta lanean segi dezagun".	"Parametro sozioekonomikoan, Euskal Herrian Espainiako Estatuaren autonomia batzuekiko abantaila handia dugula uste dugu euskaldun askok. Per capita errenta, langabezia-tasa, gastu soziala edo osasun asistentzia-mailan, Europako herrialde garatuenera Estatu baina gertuago gaude. Baina kulturari buruz ez nuke gauza bera esango. Gure herriak ez dio arlo honi nahikoa arreta jartzen. Hemengo irakurtze tasa, kultur ondasunen kontsumoa, gastu publikoa, kultur ekoizpena edo kulturari lotutako lanpostuen okupazioa lehen aipatutako herrialdeetatik oso urrun daude. Hauteskunde hauetan erraza izango da hori ikustea, kultura inork aipatuko ez duelako. Politikariek ez dute ikusten beharrezko esparru honi buruzko promesa ikusgarriak egitea. Hurrengo gobernuari eskatuko nioke hezkuntza kulturean gehiago inbertitzeko. Planak sortzea, etorkizuneko kultura kontsumitzaileak edukitzeko. Irakurleak, antzerkizaleak, musika, artea... eta egitura sortzea oinarriak gogortuz, goi mailako eskolak, antzokiak, auditoriuma... Euskal Herrian formazioa ona lortu ahal izan duten artistei esker betetzeko".



Jose Mari Bengoa eta Migel Arregi oñatiarrak, Legazpin, Eder eta Mendi txakurrekin. | MAIDER ARREGI

Bengoa eta Plazaola, Euskal Herrikora

- Oñatiarra, 'Eder'-ekin, onena izan zen Gipuzkoakoan
- Nazioarteko txapelketan ere ariko dira, bigarrenaz

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Legazpiko Gipuzkoako Artzain Txapelketan lehenengo eta bigarren postuan sailkatuta, Euskal Herriko artzain txakur txapelketan izango dira irailaren 17an Oñatiko *Eder*, Jose Mari Bengoa-ekin, eta Arrasateko *Lagun*, Jesus Mari Plazaolarekin. *Eder*-ek, gainera, irailaren 25ean Oñatin egingo den Nazioarteko Artzain Txakur Lehiaketarako txartela eskuratu zuen. Bigarren urtez jarraian lehiatuko dira Oñatin *Urzabal* eta biak.

Legazpin hirugarren sailkatu zena ere oñatiarra da, Migel Arregi-ren *Mendi*, hain zuzen ere. Jose Luis Madinabeitia oñatiarrak ere hartu zuen parte.

Birritan

Bi aldiz aurkeztu da Jose Mari Bengoa *Urzabal* oñatiarra *Eder*

txakurrarekin Gipuzkoako Txapelketara, eta bietan lehenengo egin du: "Ez zen erraza izan, baina lortu nuen, txakurra ondo dabil eta. Arregik meritu handia du, txakur gaztea du eta. Plazaola, berriz, beldur apur bat bazuen, asko ibiltzen ez delako".

Bi ariketa egin behar izan zituzten txakurrek eta txapela irabaztea gura izanez gero bigarren lana ondo egin beharra zegoela ikusi zuten Bengoak eta *Eder*-ek, parte hartu zuten beste zazpi txakurrek lehen ariketan egindakoa ikusi ondoren.

Arraza

Erretiroa hartu zuenean oparitu zioten *Eder* Jose Mari Bengoari eta duela urte pare bat hasi zen serio lanean. "Txakurrak sekulako gogoia zuela ikusten nuen eta horrelaxe hasi nintzen. Baina

ez da berdina antolakuntzan edo epaimahaian edo barruan egotea. Zuzenketa batzuk egin dizkirate Legazpin", dio oñatiarrak.

Jose Mari Bengoaren *Eder* txakurrak, gainera, arraza onenari saria era jaso zuen Legazpin egindako Artzain Egunean. Gorbela Euskal Artzain Txakurra da *Eder*. Hain zuzen ere, euskal arraza galtzeko arriskuan dagoela esan dute behin eta berriz artzain batek baino gehiagok. Egun 350 bat txakurrek dituzte bakarrik paperak aterata eta Euskal Herriko arraza autoktono hau bultzatzeko zenbait txakur-hazlek Euskal artzaina duten baserritar eta beste jabeek animatu nahi die erregistratzera.

Oñatin egingo den nazioarteko lehiaketan txapelketaz gain erakustaldiak eta artisauak ere egongo dira.

Otegik "aurpegi eta ahots nagusi" izaten jarraituko du

MIREN ARREGI | ARRASATE

Bozetara aurkeztea debekatu dio Auzitegi Konstituzionalak EH Bilduren lehendakariari Arnaldo Otegi. Auzitegi Konstituzionalak ez du tramitera ere onartu Otegiren helegitea. Ezezkoaren ondorioz eta Espainiako auzitegien bidea bukatuta, 2021eko otsailera arte Otegik ez du izango hautatua izateko eskubiderik, baldin eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiak ez badu kontrakorik esaten. EH Bilduk Europara joko dutela adierazi du dagoeneko: "Bada-kite Europara joko dugula eta bertan argudio juridikoak aztertuko dituzte". Debagoieneko EH Bilduk gaineratu du ohar bidez, "Espainiak Arnaldo hautagai ez izatea inposatzea erabaki" duela, "arrazonamendurik eman gabe, arrazonamendu juridiko zein politikoetan galtzen dutela jakin badakitelako".

"Aro berrian"

Debagoieneko EH Bilduk adierazi du ez dutela "sorpresa handirik hartu", izan ere, diote,

bazekitela erabakia ez zela parametro judizialean hartuko, baizik eta politikoetan". Gehitu dute, "boterearen indarra baliatuz argudiorik gabeko inposizioa" ezarri dutela. Otegiren inhabilitazioarekin "euskal gizartea iraganeko parametrotan mantentzea bilatzen dutela" ere esan du alderdiak. Eta nabarmendu: "Ez dakite EH Bildu eta euskal gizartearen gehiengoa jada beste aro baten gaudela, erabakitzearen aroan eta inhabilitazio eta oztopoen gainetik, bidea bukaeraraino egitea erabakita dugula". Hala ere, Otegik kanpaina egiten jarraituko duela esan dute, "ahots eta aurpegi nagusia izaten, horrela erabaki dutelako oinarriek".

Eguaztenean, Arrasateko Herriko Plazan, elkarretaratzea egitekoak ziren Auzitegi Konstituzionalaren erabakia salatze-ko *Demokraziaren alde hautagai guztiak* lelopean. Egun berean, edizio hau itxi ondoren, EH Bilduko Debagoieneko hautagaiak ekitaldia egin behar zuten, Aretxabaletan.

Euskal Herria "martxan" dagoela esan du Egibarrek

O.E. | ARRASATE

"Espainia blokeatuta dago eta momentu honetan geldirik egotea atzera egitea da. Herri hau, Euskal Herria, martxan dago eta aurrera egin behar da". Hitz horietan esan zituen EAJko Gipuzkoako zerrendaburu Joseba Egibarrek Arrasaten, alderdi jeltzaleak han zabaltu duen hauteskunde bulegoaren irekieran.

"Eraikitzen jarduteko unea" dela ere aipatu zuen Egibarrek: "Hau ez da bat-batean egiten den eraikuntza bat. Etengabeko aberri gintza honetan, garbi dago garaian garaiko lehentasunak zeintzuk diren jakiten asmatu egin behar dela, eta hor EAJk fidagarritasun bat erakusten du". Eraikuntza hori elkarlanean egin beharrekoa

dela ere esan zuen: "EAJ ez da egia osoaren jabe eta ez dago bakarrik herri honetan. Horregatik, eskatzen duguna da, bide garbiak definituz, elkarlanean aritzea".

Gaineratu zuen EAJren hautagaitza abertzalea dela. "Abertzaleak eta aurrerakoia gara. Herri honen etorkizunarekin konprometitu gaude eta badakigu zertara aurkeztu garen", nabarmendu zuen Egibarrek.

Bulegoa

Egibarrek batera, Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea, Jose Ramon Zubizarreta Eskoriatzako eta Elena Lete Bergarako ego ziren, besteak beste, bulegoaren irekiera ekitaldian, Arrasateko Maala Errebala kalean.

Euskarazko hedabideendako diru-laguntzak %26 igo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak

O.E. | ARRASATE

Gipuzkoako Diputazioak euskarazko aldizkako publikazioei bideratutako diru-laguntzak 659.700 eurotik 831.600 eurora igoko ditu.

Imanol Lasa foru bozera-maileak azaldu duenez, 172.000 euroko gorakada hau EAJ-PSE alderdien arteko gobernuak euskarazko aldizkako publi-

kazioak "euskara suspertzeko prozesuan agente estrategikotzat" hartzen dituelako egin dute. Gainera, Diputazioak laguntza-lerro berri bat sortu du eskualdeen arteko kolaborazioak sustatuko dituzten toki hedabideen proiektuendako. Lehen deialdian, 100.000 euroko diru-laguntza izango du.



Ubarretxenea, Egibar eta Urrutia ekitaldian. | IMANOL SORIANO



-Zaharberritzeak
-Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa
-Igogailuen proiektuak
-Barne dekorazioa
-Jarduera lizentziak

tel: 677 31 20 57
email: amaiigartua@gmail.com
www.aiarkitektura.wordpress.com
Oñati

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ander Castillo Zugazartaza. Elorrio



Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Zergatik aukeratu zenuten Mekatronika Industrialia heziketa zikloa egitea? Eta zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Lauxeta Ikastolan teknologiko batxilergoa amaitu nuenean, ez neukan oso argi zer egin nahi nuen. Garbi neukan gauza bakarra zen ez nuela liburu artean bakarrik jarraitu nahi, gauza praktikoak egin nahi nituela, eta poliki-poliki lan mundura gerturatu. Niri betidanik gustatu zait, txikitatik, mekanikaren eta motorren mundua; baserrian beti nenbilen gauza berriak asmatzen, motozikletekin aurrera eta atzera... Baina ez neukan argi zer egin; aurretik esandakoaz gain, basoen kudeaketako eta nekazaritzako heziketa zikloetan ere interesa nuen.

Jendearekin hitz egin ondoren, hainbat iritzi entzun ondoren, eta asko pentsatu eta gero, Mekatronika Industrialia heziketa zikloan izena ematea erabaki nuen. Momentu honetan, esan behar dut ez naizela inondik inora damutzen hartutako erabakiaz.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa hautatzeko arrazoiak bi izan dira: batetik, Elorrikoa izanda, heziketa ziklo hau egiteko gertuen dagoen zentroa dela; eta, bestetik, zentro honek eskaintzen dituen zerbitzuak eta eskolak emateko moduak beste batzuenak baino askoz gehiago erakartzen nindutela.

Pasa den larunbatean, ziklo bera beste ikastetxe batean egiten ari den lagun batekin egon nintzen, eta, berak egindako gauzak nik egindakoekin konparatu nituenean, konturatu nintzen nik gauza gehiago eman nituela, bai tailerrekoak –proiektuak–, baita teorikoak ere.

Heziketa ziklo honetan Ethazi metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak izan dituzue lehen urte honetan? Esan behar dut metodo hau oso eraginkorra dela, bai gauzak ikasteko, baita, talde-lanean, pertsona ezberdinekin, ondo lan egiten ikasteko ere. Ikasturte hasieratik

taldeka hainbat erronkari egin diegu aurre: fluido bat botatzen duen kubo bat kontrolatzea, aparkaleku bat kontrolatzea, mekanizazio zentro bat kontrolatzea, garbigailuak muntatzeko katea, bi zilindro hidrauliko dituen makina bat kontrolatzea, aire konprimituko instalazioetan praktikak, tratamendu termikoak, eta, urteko azken erronka gisa, igogailu bat eraikitzea. Lotura hauetan ikus daitezke landu ditugun erronketako bi:

<https://www.youtube.com/watch?v=2Bm0nTJvbPA>
<https://www.youtube.com/watch?v=Oqmk6zdAXJE>

Nola baloratuko zenukete zuen esperientzia?

Urte honetako esperientziaren balorazio positiboa egiten dut. Gauza asko ikasi ditut, ez bakarrik mekanikakoak, baita talde-lanekoak eta programa berriei buruzkoak ere –Autocad, Automation Studio, Tia Porta...–. Nire ikaskideekiko harremana oso ona izan da, eta denok ikasi dugu besteengandik eta alderantziz. Era berean, esan behar da nabaritzen dela oso gustura gaudela irakasleekin eta eurak gurekin, esan dezakegu harremana ona izan dela.

Lehen, nire buruari egiten nizkion zenbait galdera: “Eta hau nola egingo da?...”. Bada, galdera horietako askoren erantzuna aurkitu dut ziklo honetan. Beste alde batetik, esan behar dut alderdi asko landu ditugula: fabrikazioa, elektronika, programazioa, makinen elementua, hidraulika, pneumatika, marrazketa grafikoa... Hobetzeko gisa, soldadura ordu gehiago jartzea proposatuko nuke, uste dudalako etorkizunean beharko dugula. Gainontzekoan, pozik eta gustura Mekatronika Industrialeko lehenengo urte honetan.

www.mondragon.edu/gmh

gmhz.mgep@mondragon.edu

943 71 21 91

Bihar, egubakoitza, ospatuko dute Arantzazuko Amaren Eguna

Oinez egiten duten martxa eta meza nagusia izango dira ekitaldi nagusiak

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Bederatziurrenari amaiera emango zaio bihar, Arantzazuko Amaren Egunean.

Egun handia izaten da biharkoa eta bi ekitaldi nagusi izaten dira: alde batetik, Oñatititik oinez egiten duten martxa, eta bestetik, eguerdiko meza nagusia. "08:00etan irteten gara Oñatitik, otoitz egin, abestuz eta gogoeta eginez. 500 pertsona inguruk osatutako talde ederra batzen gara eta gero meza nagusia izaten da. Ondoren, Oñatiko Musika Bandak jotzen du. Horixe izaten da ospakizun eguna", adierazi du Iñaki Beristain frantziskotarrak.

Errukia

Urtero gai edo mezu bat izaten da, bai bederatziurrenean zehar, baita Arantzazuko Amaren Egunean bertan ere. Bada, aurtengo gaia errukia da. "Jubileo

urtean gaudela kontuan hartuta, gaia emana dator", dio Beristainek. Horri lotuta, aurtengo mezua ondorengoa da: *Errukitsua, aita bezala*.

Beherakada

Arantzazura hurbiltzen den jende kopuruari erreparatuta, behera egin du azkeneko urteetan. "Erlizio eta eliza kontu hauetan, beheraka doa jende kopurua, eta hemen ere antzematen da. Oraindik ere, biltzen den taldea ederra da", azaldu du frantziskotarrak. Gaineratu du kopuruak ez duela horrenbeste inporta eta balio duena "barrutik bizitako hori" dela nabarmendu nahi izan du.

Ettxerat

Ettxerat elkarteak dispertsioaren aurkako protesta egingo du Arantzazun, 11:00etan. Horrez gain,

Dispertsioaren haurrak izeneko txostena emango diote Iñigo Urkullu lehendakariari.

Autobus zerbitzua

Egun berezia izanda, autobus zerbitzu berezia izango da Oñati eta Arantzazu artean. Oñatitik 07:30ean irtengo da lehenengoa eta 18:30ak arte ordu erdian behin egongo da autobus zerbitzua. Arantzazutik 08:00etan izango da lehena eta 19:00etan azkena.

Honako geltoki hauek izango ditu autobusak: Olakua, Kale Goiena, Korreosko geltokia, Elkar Hezi-Arantzazuko Ama kalea eta Arantzazu.

Bestalde, 10:00etatik 14:00etara bitartean errefortzua egongo da eta ordu erdiroko zerbitzu horretan autobus bat gehiago arituko da. Gainera, Arantzazuko aparkalekua betetzen bada, autobusez igo beharko da.



Karmele Agirregabiria, Udal euskaltegiaren aurtengo leloarekin. | IMANOL BELOKI

Matrikulazio epea zabalik dago hil bukaerara arte AEKn eta udal euskaltegietan

Eskaintza zabala dute, bai euskara ikasi nahi dutenentzat, baita hobetu nahi dutenentzat ere

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Bailarako euskaltegiak ikasturte berriarekin hastear daude. Horregatik, matrikula egiteko gonbita luzatu diete euskara ikasi edo hobetu nahi duten guztiei. Izan ere, hilabete bukaerara arte izango du aukera matrikulatu nahi duenak.

Udal euskaltegiek urteroko oinarritzko eskaintza mantenduko dute; euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak eskainiz. "Ahaleginak egingo ditugu idazkuntza eta mintzamenaren lantzeko ikastaro bereziak sortzeko. Horrez gain, errefortzu eskolak, DBHko ume etorkinei bideratutako ikastaroak eskaintzeko asmoa ere badugu eta beste hainbat zerbitzu ere eskainiko ditugu, eskaintza zabala da", adierazi du Karmele Agirregabiria, Leintz Udal Euskaltegiaren zuzendariak.

Bestalde, aurtengo udal euskaltegiaren leloa *erabili euskara* da. Lelo hori aintzat hartuta, leku guztietan euskara erabiltzera bultzatu nahi dituzte herritarrak euskaltegiatik. "Arlo guztietan bultzatu nahi dugu euskararen erabilera. Lanean, jolasean, lagun artean... azken finean, erabilera bera da bultzatuko duguna", nabarmendu du Agirregabiria.

AEKn ere aukera

AEKn -Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea- ere matrikulazio epea zabalik dago oraindik, hil bukaerara arte. Urriaren 3an hasiko dute ikasturtea eta Arrasateko AEKn orotariko eskaintzak dituzte. "Maila guztietako eskaintzak ditugu, bai mintzapraktika saio bereziak, baita autoikaskuntzako saioak ere. Euskaltegian *on line* eskaintza ez dugu zabalitzen, baina AEK barruan bai, gela bat daukagulako eta bertara bideratzen ditugulako *on line* ikastaro horiek", dio Oskar Elizburuk, Debagoieneko AEK-ko zuzendariak.

Lelo afektiboa

Koordinakundeak atera nahi duen leloa *%100 afektiboa* da. Hala adierazi du Elizburuk. Afektibotasunari garrantzia ematen diote metodologian. Besteak beste, pertsonen arteko harremanari garrantzia eman nahi diote. "Mezuak berak esaten duen bezala, afektiboa izateaz aparte, efektiboa ere bada. Hain zuzen ere, gustura eta harreman onean ikasita, efektiboagoa da ikasketa, baita baliagarriagoa ere", azpimarratu du Elizburuk.

Korrika

Ikasturte honetan Korrika ospatuko da, eta hasi dira prestaketa lanetan. "Ezin dugu ezer aurreratu. Esan dezakedana da udarako kamiseta batzuk atera genituela, lehenengo jauzi hori emateko. Ezin dut gehiago esan, bakoitzak atera ditzala ondorioak, kamisetak berak ematen duen informazioarekin", azpimarratu du Elizburuk.

ESANAK

"Euskararen erabilera arlo guztietan bultzatu gura dugu"

KARMELE AGIRREGABIRIA | LEINTZ UDAL EUSKALTEGIKO ZUZENDARIA

"Afektiboak izateaz aparte, efektiboak ere bagara AEKn"

OSKAR ELIZBURU | DEBAGOIENEN AEK-KO ZUZENDARIA

LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - Aretxabaleta
Intxaurtxueta 9 - Eskoriatza
943 79 21 68
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus

BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta,
18-behea, Oñati
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate.eus

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
euskaltegia@bergara.eus

ZABALIK



IÑAKI CASAS
goiena.eus/komunitatea/

Euskadik botoa eman behar du

Ilrailaren 25ean, Euskadik aukera itzela dauka, beste behin, frogatzeko bere demokrazian parte hartzen duen herria dela, bere etorkizuna erabakitzen duela eta bere arazoak eragin-kortasunez kudeatzen dituela. Tradizionalki, euskal hauteskundeetan, batez besteko parte-hartzea hauteskunde orokorren gainetik egon izan da.

Duda barik, horren arrazoia da gure historia hurbilaren berezitasuna; izan ere, horren eraginez, heziketa politiko handia daukagu inguru hauetan, eta, horrenbestez, konpromiso handia horrekiko, Estatuko beste erkidego batzuetan dagoen hoztasunetik oso urrun.

Gutxi –edo ezer ez– egiten ari dira Espainiako Erreinuan egoera hori hobetzeko; ez da, gaur-gaurkoz, solasaldiaren, kontsentsuaren eta akordioaren erakusleihorik onena. Krisialdia, ustelkeria kasuak... eta iazko abendua ezkerro, goernua osatzeko gaitasunik eza, hauteskundeetara birritan deitu ostean.

Eta egoera horretan, hauteskunde autonomikoak ditugu; inolako errurik izan gabe, Euskadiko hiriburu administratibotik –Gasteiz– 365 kilometrorra sortutako lohiek ziprztinduta egongo dira. Konfiantza daukat gure kultura politiko zabalean, aintzat hartuko ditugula hemen dauzkagun gizarte ongizate maila handiak, aurrean ditugun erronkak, eta abar; ea hori guztiori nahikoa erakargarria den hautetsontziak botoz leher ditzagun eta pasu egin ez dezagun.

Bestela, ze aurpegi jarrita animatuko ditut nire lagunak demokraziaren festan parte har dezaten? Helduleku bakarra daukat: "Hau ez da hangoa bezala". Hori ez da argudio bereizgarri edo bereizlea, baizik eta borondateen biderkatzaile eta eragilea han-hemenka, desengainua geldiarazteko, eta aldarrikatze-ko parte hartzeko eskubidea daukagula gure erakundeak kudeatzen dituzten gobernuak hautatzeko orduan. Horregatik, Euskadik botoa eman behar du.

USTEAK USTE


LEIRE KORTABARRIA | lkortabarria@goiena.eus

Giltzaz itxita

Zeinek gura ote du gaur egun elizara joatea, galdetuko dute askok... bada, uste baino gehiagok. Elizak ez dira bakarrik elizkizunetara joateko; fededunondako ez ezik, badira jendearen topagune, gogoeta-leku, artearen eta herriko historiaren eta bizitzaren gordeleku ere, beste batzuen artean. Eta, guztiaren gainetik, denondako lekuak dira. Erljioaren ikuspuntutik, Jainkoaren etxea dira, eta, beraz, denon etxea. Hori horrela izanda, ulertezina egiten zait elizkizunak eta turisten bisita gidatuak ez dauden beste une guztietan elizak giltzaz itxita egotea. Eskaera txikiagoa duten baliabide batzuen erabilgarritasuna ez bada zalantzan jartzen, zergatik horiena bai?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Kazetaria eta artista garaikidea

Iban Arantzabal
http://goo.gl/adgffZ

Goienatik *Gipuzkoa kultura* deitzen zen telebista programa bat egiten genuen. Oso maitea genuen programa, egia esan. Batzen ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura teknikariak zuten jakintza eta Goienatik telebista egiteko behar zena. Emaizta duina zen. Askotan, hala ere, izaten genituen komentarioak Artelekutik bueltan etortzen zirenean kazetariak... Komentario haiek gogoan eta irakurri berri dudan liburua aintzat hartuta zati bat gustatu eta ekarri dut blog honetara, Juan Luis Zabalaren *Txistu eta biok* liburutik. Berari baimena eskatu barik eta zatiok irakurtzean barre egin dudala egileari aitortu ostean.

Ondo pentsatuta, azken batean inbidiagatik izango da seguru asko. Artista garaikidea nahi duena egiten du, bere barruko bulkadari askatasunik handiena eman diezaioke, eta horixe bera txalotuko diote gainera, bere buruari mugarik jartzen ez dion sortzaile ausarta dela esanez. Kazetariak, aldiz, eskatzen zaion piezaren

neurriari, tonuari eta gainerako ezaugarri nagusiei ez ezik, men egin behar die: egia, errealitateari edo dena delakoari; zuzentasun linguistikoa eta gramatikalaria, hizkera xenofobo, sexista edo misantropoa saihestuz; medioaren ideologiari, deontologiari eta, egokitzen bada, premia komertzialei; iritzi publikoa deitzen denari eta ustezko zentsuzkotasunaren mugei. Eta hori guztia, nahitaez, aintzat hartu behar du ordenagailuaren aurrean tekla bat zanpatzen duen bakoitzean.

... Nolanahi ere, aitortu behar dut atsegina zaidala arte garaikidea, erakarri egiten nauela... ... Seguru asko erabateko askatasuna eskaintzen duelako, gehienetan funtsezko ezertarako baliagarri izan gabe bere baitan alferrik galtzen den askatasuna bada ere.

Urarekin topa

Angel Erro
http://goo.gl/6R8XoC

Ez naiz sineskeriatsua, baina otorduren batean norbaitek topa egitekoa egin eta kopa hutsik baldin badut edo une horretan ura edaten ari banaiz —inoiz gertatu da—, ez dut

edalontzia goratzen edo, posible bada, presatzen naiz hurbileneko botilatik ardoaz edo betetzeko. Ez ohi naiz sineskeriatsua —edan zalea izan beharko dut, beraz—, baina urarekin topa ez egitekoa zorrotz betetzen dut, etxean ama zenak irakatsita. Horregatik hainbesteko ikara eragin zidan, astelehenean, ETB2ko saio batean Urkullu lehendakari eta lehendakariagaiak topa beti urarekin egiten duela aditzeak. Suerte txarra ekartzen omen du.

Baten batek jaulki lezake orain arte ez zaiola gaizkiegi joan, baina zoritxar kontuetan inoiz ez da jakiten noiz. Beste batek argudia lezake politikan baten zoritxarrak beste norbaiten zoriona dakarrela eta, beraz, gaitzerdi. Lehiakideak, badaezpada, ur botilen kutxak bidaltzen irudikatzen ditut. Zabalak *Evian* (alderantziz *naive* baita), Mendiak *Cloud Juice* izeneko euri ur garesti eta lurra ukitu gabe bildua, Otegik *"Bitxi Katalan"*... Alonso Madrilén galdetuz zerbait bidali ala ez (ur bedeinkatua?), ez baita erraza asmatzen EAEn zer emaitzaren zain dauden, zain egon badaude eta, Rajoy presidentea izanen bada.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa, Nerea Artoia.

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale


Gipuzkoako Foru Aldundia


Arrasateko Udala


Bergarako Udala


Oñatiko Udala


Aretxabaletako Udala


Eskoriatzako Udala


Antzuolako Udala


Aramaioako Udala


Elgetako Udala


Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

GUTUNAK

Denon artean,
denon herria

Ion Albizu Gonzalez
Aretxabaleta

Psikologiari bi kontzeptu lapurtuko dizkiot bizi garen hiper-hauteskunde (estatuan zein EAEn) egoera hau ulertzen saiatzeko.

1-*Indefensión aprendida* delakoa. Horrek esan nahi du pairatzen duen pertsonak ez duela ezer egiten sufrimendua ekiditeko, aukerak izanda ere; jasotako sufrimenduak etsipenera eramaten du, bizitza horrela dela onartzerak eta etorkizun barik bizi irautera.

2-Erresilientzia. Hau justu kontrakoa da. Jasotako sufrimenduetatik onik atera eta harago, pertsona moduan osatuagoa-indartsuagoa-hobeto atera.

Lehenengoan, pertsonak bere ilusioa, erabakiak, etorkizuna... besteengan uzten ditu, era pasiboan. Bigarrenean, aldiz, norberak hartzen du bere bizitza sorbalda gainean.

Lehenengo zein bigarren kontzeptuetan kokatu

daitezkeen gizarteak egon badaude.

Ikusi duguna ikusita, Espainiako gizarte *indefensión aprendida* delakoan kokatuta dagoela esango nuke; ez du bere etorkizuna bere gain hartu. Herritarrek barneratu dute aldaketa ez dela posible, eta pentsamendua errealitate bihurtu da.

Guk -euskal gizarte- non kokatuko genuke gure burua?

Egoera ikusita, aurrerapen barik dagoela esango nuke, txarrerantz doan zantzu batzuekin. Gizarte moduan datu bakar bat: EAEko PIBak gora egin duen arren, familien sarrerak jaitsi egin dira. Herri moduan, erabakitze eskubidea gauzatzeko bidea argitu barik.

Betikoek ez gaituzte egoera honetatik aterako. Orduan, zer egingo dugu? Ilusioa jan digutenei boterea ematen jarraitu? Edo herria motxilan sartu eta aurrera egin?

Espainian ez, baina geurean badaude aldaketarako aukerak; hortaz, zeini dagokio horren lidergoa?

Eta zertarako izan behar du?

Arnaldo Otegiren taldearen proposamenak herriarengan jartzen du horren ardura eta boterea. Denon artean, denon herria eraikitze gonbita! Animo!

Erabakiaren eta
erantzunaren
zain

Josu Pereda

('Debagoiena eredu. Zabortegirik ez!' elkartearen izenean)
Arrasate

Urtero bezala, aurren ere oporraldiak eskaintzen digun deskonexioa amaitu osteko epean gaude. Deskonexio horrek, ordea, ez ditu aurretik genituen kezkak eta korapiloak askatu, eta berdin diraute, utzitakoan bezala.

Korapilo horietako bat Epelen Gipuzkoako zaborrarentzat egin nahi den zabortearen mehatxua dugu. Luzatu genien horretan ardura duten arduradun politikoei auzi horren aurrean zituzten iritziak eta

asmoak azaldu eta argitu zezaten eskaera. Ez genuen erantzun zehatzik jaso eta gaur da eguna, oraindik ere, Mankomunitatetik erantzunik jaso gabe jarraitzen dugun eguna. Non da gaur egungo mankomunitateko arduradun politikoei kudeaketan ezarri dutela dioten "transparentzia"? Ez ote da hitz egokiagoa "sekretismoa"? Erantzun horren eskean behin eta berriz zuzendu garen arren, ez da erantzun garbirik jaso. Nola izendatu kudeaketa eredu hori?

Herritarrei loturiko kudeaketa, egokia izateko, printzipio eta balore batzuetan oinarrituta egon behar dela uste dugu. Gai gehienetan ekonomiak garrantzi handia du, noski; ez, ordea, ezarritako printzipioen gainetik jartzearainoko garrantzia, gaiak sensiblerak direnean, batik bat. Zabortearen auzian arlo ekonomikoak garrantzia duela ez dago ukatzerik, baina, printzipioak sendoak izanez gero, hauek gaintzeko modukoak dira. Ba al duzue hondakinen bilketa eta ondorengo kudeaketan egin

beharrekoentzat ingurumenarekiko oinarri sendorik? Ekonomiaren printzipioak soilik finkatu behar al digu etorkizunerako bidea zein den? Eta gu guztion osasuna non gelditzen da?

Arrasateko alkateak bere posizioa argitu zigun. Mankomunitatean bozketa egonez gero, Arrasateko udalak ezezkari eutsiko lioke? EAEko hauteskunde atarian gaude eta herritarrek jakin nahi dute Epelen Gipuzkoa osoko zabor nahasia jartzeko asmoa duzuen edo ez. Beraz, alderdi guztiei eskatzen diegu gai honen inguruan argi eta garbi posizionatzeko.

Gure aldetik, *Debagoiena eredu. Zabortegirik ez!* taldea berriz ere martxan dagoela adierazi nahi dizuegu. Datozen asteetan sinadurak jasotzen jarraituko dugu gure eskualdean eta udazkenerako plangintza ere prestatzen hasi gara.

Guztiok inplikatzeko bagara, lortuko dugu Epeleko zaborte nahasiaren proiektua ez egitea.

Debagoiena eredu. Zabortegirik ez!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

GARDEN

ALOS QUARTET

EÑAUT ELORRIETA + OREKA TX + AUKERAN DANTZA KONPAINIA

Irailaren 24an, 22:30ean Bergarako Udal Pilotalekuan

Sarrerak salgai 15, www.pikupe.com edo Pikupe Produzioak-ek Artekalen duen egoitzan

HERRIAK

ONATI

Pasiotarren ospakizuna

- Gaur egun Lauaxeta ikastola dagoen eraikinak 60 urte bete ditu
- Sustatzailea Elortza elgetarra izan zen eta arkitektoa Lizaur oñatiarra

OIHANA ELORTZA | OÑATI
60 urte betetzen dira aurten pasio-
tarrek Euban (Zornotza, Bizkaia)
euren ikastetxea zabaldu zutela.
Martin Elortza elgetarra izan zen
egitasmo horren sustatzaileetako
bat eta non egin erabaki eta las-
ter hasi zen proiektua lantzen
Damian Lizaur arkitekto oñatiar-
ra. Irailaren 17an ospatuko dute
urteurrena eta hango ikasle izan-
dakoak daude gonbidatuta. "Deba-
goieneko batek baino gehiagok
ikasi genuen han", dio Jose Anto-
nio Urteaga oñatiarrak.

Argazkiak
Hego Euskal Herriko eta Gali-
ziako ehunka ikasle batu zituen
Eubako pasiotarren ikastetxeak.
1948tik 1956ra iraun zuten lanek,
"eta lehen ikasleak obrak bukatu
aurretik joan ziren ikastetxera.
Gabiriako eta Deustuko ikaste-
txeetatik joandakoak izan ziren

lehenak, 110", dio pasiotarren
artxiboa astindu eta datuak eta
argazki zaharrak berreskuratzen
lanean ibili den Urteagak.
Argazkietan agertzen diren
gehienak, gainera, identifikatuta
ditu: "Pianoa jotzen ari den hau
Juan Carlos Irizar da. Bertsotan
ari den hau, berriz, Jose Mari
Iriondo. Hemen agertzen den hau
Julen Elgorriaga da. Miguel Mari
Lotina eta Anton Mari Aldekoa-O-
talora ere ikusten dira erretra-
tuetan. Baita Xabier Mendiguren
Bereziartua eta Joseba Zulaika
ere". Gogoan du logela azken
pisuan zutela: "Ohe guztiak zeu-
den gela bakarrean, hirugarren
pisuan. Lau ilaratan zeuden jarri-
ta. Arropekin eramandako male-
tak ohe azpian gordetzen genituen".
Azkaine
Jose Antonio Urteagak esanda-
koaren arabera, Martin Elortza

elgetarraren ideia izan zen erai-
kina Euban egitearena. "Oso
kudeatzaile ona omen zen Elor-
tza. Errepublikara garaian, ihes
egin behar zuten beldur ziren,
eta bere ideia izan zen Azkaine-
ko eraikina erostea", dio. Gogoan
du haren heriotza ere. "Filoso-
fiako ikasleak ginen gu eta gogoan
dut nola joan ginen denok Elge-
tara elizkizun batera. Abestu
egin genuen; elizkizun solemnea
izan zen. Gerora, argazkiak iku-
sita, jakin dut Martin Elortzaren
aldeko hileta elizkizuna zela
orduko hura".
Pasiotarren ordenak antola-
tuta, duela bi urte omendu zuten
Martin Elortza (Elgeta, 1899-Lima,
1966). 1954ko otsailaren 24an
gotzain izendatu zuten, Perun.
Hamaika urterekin sartu zen
Gabiriako Kolegio Apostoliko
zaharrean, eta 1924an egin zen
apaiz. Langile burutsu eta neka-


gaiztzat jotzen dute pasiotarren
ordenan eta paper garrantzitsua
aitortzen diote erlijiosoen ikas-
keta-sistema berritzeko ahalegi-
nean. Seminarioko lehen euska-
ra irakaslea izan zen, eta ikasle
guztiak behartu zituen euskara
ikastera.
Eubako eraikinaren proiektua
zuzendu zuen Damian Lizaur
arkitektoaren hiletaz ere gogo-
ratzen da Urteaga: "Etxe bereko
bat baino gehiago hil ziren auto
istripu berean, eta hileta jende-
tsua izan zen".
Mojak
Pasiotarren artxiboan aurkitu-
tako argazkien artean, eraikina-
ren lehen harria jarri zituztene-
koak ere aurkitu ditu Urteagak.
Burgosko gotzaina ageri da ber-
tan, bedeinkazio lanak egiten.
Ikastetxea eraikitzeko lanak
egiten ere agertzen da, baita ikas-

leak ere ikasteko mahaiak garraia-
tzen ere. Signako (Italia) mojak
ere agertzen dira argazki askotan;
fraide pasiotarrek deitu zituzten
sukaldeaz, jostuntzaz eta garbi-
ketaz arduratzeko.

Euskara
Hasierako urteetan otoitz egiteko
espiritua eta diziplina ziren oina-
rriak Euban, eta latina ikasgai-
rik garrantzitsuenetakoa. Matema-
tika eta natur zientziak sartzen
joan ziren gero. Euskarak, baina,
beti izan du garrantzia Zornotza-
ko ikastetxe horretan. Jose Mari
Iriondok dioen bezala, oraindik
gogoan du Martin Elortzak hasi-
tako *Atzizkiak* eta *Aditza: gipuz-
kera-bizkaiera* lanak.
Euskara eta euskal kultura
lantzeko, *Bidez* eskolako aldiz-
karia argitaratzen hasi ziren
1963an, erabat euskaraz idatzita.
Bost urtean 27 ale inguru kale-
ratu zituzten. Bi urte lehenago,
Amistad kaleratu zuten, gaztele-
raz. Bietan idatzi zutenen artean
daude: Nikolas Aldai, Joseba
Zulaika, Anton Maria Aldekoa-O-
talora eta Jose Antonio Urteaga.
1959tik 1979ra artean *Euba'ko*
Euskal Jaiak ospatu zituzten
urtero eta euskal kulturaren ingu-
ruko zenbait ekintza antolatzen
zituzten beti: dantza taldeak, Esti-
txu, Lupe eta Gontzal Mendibil
abeslariak edo Azpillaga eta Laz-
kao-Txiki bertsolariak, esaterako,
izan ziren orduko jaietan. Lupe
abeslariaren kontzertu bateko
argazkiak, gitarra eskuan duela,
aurkitu dituzte artxiboan.

Txartela
1956 eta 1969 urte bitartean 1.029
ikaslek eman zuten izena Euban.
Urte hartan San Gabriel ikaste-
txearen aldia hasi zen eta 1977an,
Lauaxeta ikastolarena.

Sasoi hartan Eubako ikasle
izandako guztiak daude gonbida-
tuta irailaren 17an egingo den
ospakizunera. Orduko historia
laburtzen duten informazio pane-
lak jarriko dituzte, argazki zaha-
rrekin ilustratuta. Eguerdian
elkartuko dira eta argazki era-
kusketa zabalduko dute; dantza-
riak, bertsolariak eta abeslariak
ere egongo dira ongietorri ekital-
dian. 13:00etan ikastetxeko insta-
lazioetara bisita egingo dute, ira-
ganetik gaur egunera arte inguruak
nola aldatu diren ikusteko.
14:00etan argazkiak aterako dituz-
te taldeka eta 14:30ean izango da
bazkaria. Bazkarira joan gura
duenak aurretik egin behar du
ordainketa: 30 euro sartu behar
ditu Laboral Kutxako kontu korron-
te honetan: 3035 0033 60 0330028963.
Izen-abizenak jarri behar dira
ordainketa egiten denean. Infor-
mazio gehiagorako, bi telefono
zenbaki hauetara deitu 656 78 76
80 edo 653 01 61 17 edo hona idatz
daiteke mezua: *gabiria-euba@*
hotmail.com. "Ea asko elkartzen
garen", dio Urteagak.



PASIoTARREN ARTXIBoA

DAMIAN LIZAUr Damian Lizaur arkitekto oñatiarrak egin zuen Eubako
eraikinaren proiektua. Urretxuko ikastola dagoen eraikina ere berak
egindakoa da. Lehen, pasiotarrak zeuden han, baina egun, ikastola
bakarrik dago. Damian Lizaur arkitekto oñatiarra 1956an hil zen auto
istripu baten. Eubako obrei buruz kuriarekin Deustun egindako bilera
batetik zetorren. Familiako hainbat kide hil ziren istripuan.



PASIoTARREN ARTXIBoA

DEBAGOIENDARRAK 1964an ateratako argazkia da hau. Goiko ilaran
daudenak dira, ezkerretik eskuinera: Joseba Zulaika antropologoa (Itziar),
Jesus Mari Larrea (Bergara), Juanito Aranburu (Bergara), Jesus Mari
Baskaran (Arrasate) eta Luis Mari Zabalo (Antzuola). Beheko ilaran:
Alberto Gabilondo (Osintxu), Jose Antonio Urteaga (Oñati), Santi
Gabilondo (Oñati) eta Iñigo Andonegi (Mutriku).



PASIoTARREN ARTXIBoA

MARTIN ELORTZA Inazio Iguaran, Luzio Apraiz eta Martin Elortza
elgetarra izan ziren pasiotarren etxea non egin erabaki zutenak. 1959ko
udan, ikasturte bukaeran, Elortzak (orduan Moyobambako gotzaina)
banatu zizkien ikasleei diplomak. Argazkian zutik agertzen den mutikoa,
esaterako, Xabier Mendiguren Bereziartua da, Kontseiluko presidente
izandakoa.



PASIoTARREN ARTXIBoA

HIRU Argazkian agertzen den itxura du gaur egun Eubak. Eraikin
nagusiaren zatirik handienean Lauaxeta ikastolako gelak daude.
Erretiratutako pasiotar gutxi batzuek erabiltzen dute zati txiki bat.
Aurrealdeko eraikin horizontalean adinekoen erresidentzia bat dago eta
inguruan dauden etxe tutelatuak ere egoitza horrek kudeatzen ditu.
Ageriko zein estalitako kirol eraikinak ikastolarenak dira.

Mugikortasun Astea garraiobide osasuntsu eta garbiak sustatzeko

Doako hiri busa eta bigarren eskuko bizikleten azoka ez dira faltako

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Europako Mugikortasun Astea-ekin bat eginez Mugikortasun Astea antolatu du Arrasateko Udalak irailaren 16tik 22ra. Herriko biztanleen artean bizikletaren eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko helburuarekin, hainbat ekintza antolatu dira aurtengo edizioaren baitan.

Birzikleta azoka

Aurten ere Birzikleta azoka egingo dute Mondragones kalean. Irailaren 17an izango da 11:00etatik 14:00etara.

Erabiltzen ez dituzten bizikletak bertan saldu nahi dituzten herritarrek Udal Azokan entregatu beharko dituzte. Horretarako aukerak zapatu honetan, 11:00etatik 13:00etara, eta irailaren 13an eta 15ean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Egoera onean dauden era guztietako bizikletak jasoko dira, eta hauen salneurria jabeak ezarriko du. Behin azoka amaituta, irailaren 22an bueltatuko zaizkie jabeen euren bizikletak edo euren bizikleten salmentarekin lortutako dirua.

Irailaren 17an, eta azokaren ordu berean, *Mugitu zaitez bizikletaz erakusketa* egongo da Seber



lazko Birzikleta azoka | GOIENA

Uda partean zortzi bizikleta agertu dira

Arrasateko Udalak jakinarazi duenez, zortzi bizikleta agertu dira uda sasoiari. Ez dute argitu galdutakoak edo lapurtutakoak diren, baina udaltzainen bulegoan daude. Bizikletaren bat falta dutenek bertara joan beharko dute haren deskribapen batekin.

Horrelako kasuak hobeto ebazteko, herriko bizikleten erregistroa egin nahi du Udalak.

Altube plazan eta hurrengo egunerako bizikleta bira antolatu dute, 10:00etan, Seber Altuben.

Mugikortasun adimentsua

Urtero bezala, hiri busa dohainik izango da Mugikortasun Aste osoan. Horretaz gain, mugikortasun adimentsu kanpaina antolatu du Arrasateko Udalak. Bizikletan, oinez edo garraio publiko mugitzeko konpromisoa sinatzen duten herritarren artean sariak banatuko dituzte. Besteak beste, bizikleta ekipamenduak eta Lurraldebus txartelen kargak.



Muzibar-Arbolapeta hiri tartea gaur egun | XABI GOROSTIDI

Muzibar-San Frantzisko hiri tartea antolatzeke erakusketa

X.G. | ARRASATE

Irailaren 13tik 28ra arte, Muzibar-Arbolapeta-San Frantzisko hiri tartea berrantolatzeke erakusketa jarriko du Arrasateko Udalak Kulturaten.

Erakusketaren helburu nagusia da hiri zati hori antolatzeke proposamenei buruz herritarren iritzia jasotzea. Horretarako, planoak eta proiektuari buruzko informazio zehatza egongo dira eskuragarri.

Hiru multzo, 21 proposamen

Erakusketan, kale tarte hori antolatzeke 21 proposamen izango dituzte herritarrek, hiru multzo nagusitan banatuta: Erreka azaleratu barik, erreka azaleratuta zabalera txikiare-

kin eta erreka azaleratu gabe zabalera handiagoarekin. "Hainbeste proposamenekin, nahasgarria izan daiteke herritarren iritzia norantz doan jakitea. Beraz, hiru multzo nagusitan antolatzea erabaki dugu", adierazi dute Udal Gobernuako kideek.

Oinezkoentzako kale bihurtzea, aparkalekuak murriztea, bidegorria egitea eta halako proposamenak egongo dira mahai gainean. Herritarrek hainbat aukera izango dituzte euren iritzia helarazteko. Lehen, Kulturaten bertan; bigarrena, BAZen; eta hirugarrena, www.arrasate.eus webgunean. Iritziak emateko epea otsail bukaera arte izango da.

ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2016

"Mugikortasun adimentsua, ekonomia indartsua"

Irailaren 16tik 22ra



EGITARAUUA

■ Irailak 17 Zapatua

- **BIRZIKLETA AZOKA** – Bigarren eskuko bizikleta azoka Mondragones kalean, azoka ondoan. 11:00–14:00 (*) Noiz eta nola batuko den materiala

• ERAKUSKETA

- MUGITU ZAITEZ BIZIKLETAK. Seber Altube plaza. 11:00-14:00. Paseoko bizikletak, tolesgarriak, eletriakoak

■ Irailak 18 Domeka

- **BIZIKLETA BIRA** Irteera: Seber Altube plaza 10:00

■ Irailaren 16tik 22ra

• MUGIKORTASUN ADIMENTSUA

Zure mugikortasun iraunkorra saritzen dugu. Sina ezazu konpromisoa eta lor itzazu sari bikainak.

Parte hartzeke baldintzak:

- Mugikortasun iraunkor baten aldeko konpromisoa sinatzea
- Arrasatearra izatea edo Arrasatetik/Arrasatera lanera edo beste edozein ekintzatarako joan-etorriak egitea
- Ibilbide hauek oinez, bizikletaz edo garraio publikoan egitea

Konpromisoa jasotzeko eta sinatuta entregatzeko: BAZen, Liburutegian, Kiroldegian, udal webgunean edo agenda21@arrasate.eus.

■ Irailaren 13tik 28ra

• ERAKUSKETA

- MUZIBAR-ARBOLAPETA-SAN FRANTZISKO: berrantolaketa proposamenak. Kulturate

(*) BIRZIKLETA azoka -

- Zer batuko da: Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikletak, trizikloak, kaskoak, belozimetroak, gurpilak, eskularruak, mailotak... Materiala garbi eta egoera onean ekartzea eskatzen da. (Patinak eta patineteak ez dira jasoko)

- Noiz eta non batuko da materiala: Udal Azokan
Irailaren 10an, zapatua 11:00 – 13:00
Irailaren 13an, martitzena, eta 15an, eguena 11:00 – 13:00 - 17:00 – 19:00

- Salneurria jabeak jarriko dio
- Saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabeari itzuliko zaio irailaren 22an, eguena 17:00 - 19:00 Udal Azokan.



HIRI BUSA

- Irailaren 16tik 22ra, hiri busa DOAN.

** Adingabeek autobusa erabili ahal izango dute barrik nagusi batekin badoaz edo ohiko eskola bidaiek egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezela)**

BIZIKLETEN ERREGISTROA

Urritik aurrera

Arrasaten bizi bazara, zure bizikleta erregistratu dezakezu BAZen.

Udal erregistro bat sortuko da nahi duen herritarrek bere bizikleta erregistratu dezan. Honekin lortu nahi da informazio erabilgarria, lapurretak daudenean laguntzeko, galdutako bizikletak identifikatzeko...

Ikastaro ugari Jabetze Eskolaren eta Emakume Txokoaren eskutik

Irailaren 13tik 16ra bitartean eman beharko dute izena interesatuek

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Emakume Txokoak eta Jabetze Eskolak irailean hasi eta urte amaiera arte iraungo duten ikastaro eta tailer ugari prestatu dituzte.

Jabetze Eskola Emakume Txokoaren formazio eta topaketa gunea da, eta haren helburuak dira emakumeak euren buruaren jabe izatea eta horretarako sareak sortzea. Horiek gauzatzen laguntzeko, hainbat ikastaro eta tailer prestatu dituzte. Horietako bat bideogintzarekin lotutakoa izango da. Itziar Bastarrika argazkilaria gidatuko du eta euskarazko 19 saio izango dira, denak astelehenetan.

Horietako beste batean autoestimua eta jabetza landuko dira Pepa Bojo psikologoaren laguntzarekin. Martitzenetan izango dira saioak, guztira bederatzi saio izango dira.

Emakume Txokotik ere hainbat ikastaro prestatu dituzte. Mindfulness ikastaroan, oreka emozionala lortzeko tresnak jorratuko dira Pepa Bojorekin. *Emakumeok geure burua zaintzen* izenburua duen ikastaroan, masajeak, berreziketa posturalak eta luzaketak landuko dira Antonia Nogueirasekin, eta Jaione Albe-

IRAILEAN HASTEN DIREN IKASTAROAK			
IKASTAROA	HASIERA	ORDUTEGIA	PREZIOA
Bideoak sortzen eta editatzen	irailak 26	18:00-20:00	57€ - 62€
Autoestimua eta jabetza	irailak 27	15:30-17:30	27€ - 32€
Bazen behin...Ni!	irailak 28	18:30-20:30	24€ - 29€
Ahotsarekin jolasean	irailak 29	18:00-20:00	21€ - 26€
Irakurketa feministen txokoa	irailak 29	18:03-20:30	24€ - 29€
Mindfulness	irailak 28	18:00-20:00	20€ - 35€
Pilates-Yoga	irailak 26	20:00-21:30	20€ - 35€
Emakumeok gure burua ezagutzen	irailak 28	16:30-18:00	20€ - 35€
Munduko dantzak	irailak 30	18:00-20:00	20€ - 35€
Autodefentsa feminista	azaroak 12	10:00-14:00	doan
Feminismo deskolonialak	azaroak 2	18:00-20:30	11€ - 13€

nizen eskutik munduko dantzak ikasketako aukera izango da, besteak beste.

Izena emateko baldintzak

Ikastaro eta tailer ezberdinetan izena emateko epea irailaren 12tik 16ra izango da. Interesa dutenek Emakume Txokoan bertan, telefonoz, e-postaz edo web ataritik egin dezakete.

Izen emate orria Emakume Txokoan edo www.arrasate.eus webgunean eskuratu daiteke. Aukeratutako ikastaroak gustukoenen arabera zerrendatu beharko dira, behar beste plaza ez dauden kasuetan lehentasunak ezartzeko. Zortziko taldeak izan beharko dute, eta Arrasaten errol-datutakoek lehentasuna eta prezio merkeagoak izango dituzte.

Arrasate Musikalen matrikulatzeko epea zabalik dago irailean zehar

X.G. | ARRASATE

Arrasate Musikalen 2016-2017 ikasturteko matrikulazio epea zabalik dago astelehena ezker.

Kontrabaxua, biola eta tuba bezalako instrumentuetan izena emateko lekua geratzen da oraindik, eta baita 4-5 eta 5-6 urteko musika tailerretan ere.

Interesa dutenentzat, hau da idazkaritza ordutegia: goizez, 10:00etatik 12:00tara eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara.

Ikasturteko lehen kontzertua

Oporretatik itzuli berri diren arren, Arrasate Musikaleko Big

Band-eko kideek asteburu honetan egingo dute ikasturteko lehen kontzertua.

Domekan izango da, irailak 11, Legazpiko jaien baitan. Hitzordua 19:00etan, Herriko Plazan.

Diskoa salgai

Aipatu beharra dago Big Bandeko partaideek disko bat atera berri dutela eta domekako kontzertuan bertako pieza asko joko dituztela.

Diskoa lortu nahi duenak Monte tabernara edo Arrasate Musikalera joanda eros dezake, bost euroren truke.



XABI GOROSTIDI

Udalpe elkartea berrituta

Legedi berrietara moldatzeko eraldaketa prozesu sakona egin dute Udalpe elkarteko kideek. Pasa den zapatuan inauguratu zuten, eta lokal berrian argitasuna da nagusi.

Abaroa elkartetik Donostia itsasontziz ezagutzeko irteera

Arrasateko erretiratuen elkartetik irteera polita antolatu dute irailaren 28rako, egueztena.

Pasaian hamarretakoa egin ondoren barkuz bidaiatxoa egingo dute *Albaola* itsasontzia dagoen museoraino. Museoa bisitatu ondoren atsedenditxoa egingo dute eta jarraian Unietako Oianume sagardotegian egingo dute bazkaria. Izen emateak irailaren 14an egingo dira, 10:30ean, erretiratuen egoitzan, 32 euroren truke.

1953an eta 1955ean jaiotakoek kintadak egingo dituzte

1953. urtekoek Zugarramurdin egingo dute aurtengo ospakizuna, irailaren 24an. Interesa dutenek ondorengo kontu korrontean egin dezakete 60 euroko diru-sartzea: 3035-0202-74-2021044186.

1955ean jaiotakoek ere Arrasatetik kanpo ospatuko dute. Urriaren 1ean elkartuko dira Lekeitiora joateko. Kasu honetan ere 60 euroko kostua izango du, eta antolakuntzatik diru sarrera lehenbailehen egitea eskatu dute. Horretarako kontu korrontea: 3035-0202-72-2021046489

NIRE USTEZ

NEREA
MAKAZAGA



Harlemeko kluba

Hasiera baten ez zengure planetan sartzen abuztuan bidaiatzea. Baina horrela tokatu zen. Opor luze-rik ez, baina egun gutxi batzuk lapurtu ahal izan genizkion lanari zein beste beharrei, eta, beraz, aukera parean suertatuta, aurtun etxean ez gertatzea erabaki genuen.

Ez zen bertan ginen bosgarren egunera arte gertatu, egun osoko nekeak lotara gonbidatzen zaituen beste gau horietako batean. Une horretan, denborak legerik jarraitu gura ez duenean, memoriak soilik ezagutzen duen istorio berberean hasi zen oraina idazten.

Urteko sasoi ezberdinari legokeen tenperatura kontrasterik ere ezin sumatu, aire girotuak ahultzen baitzuen udako beroa. Eta horrela, jende berriak inguratzen gintuen aulki hartatik, Bartzelona hirian aurkitzen ez zen Harlem auzotik, ikuskizunak norabide ezkututak –baina akaso aurre ezagutuak– hartu zituen, keak antzina lez, azken notak ekar zezakeenaren metaforan. Urtzear zeuden gelek hoztutako edalontzia esku jolasean beste behin. Doinua berbera bailitzan, erritmoari sustraitzeko gura, koordinazioa paradigma amagabeetan desegitear...

Paperean idatzita neukan testu zaharrekoa edo oporrek ekarritakoa, zein momentu zen errealago jakin guran, garai bateko bidaiak eta orain urruti ditudan lekuak birgoratzen amaitu ditut oporretako azken egunak.

"Denborak legerik jarraitu gura ez duenean, hasi zen oraina idazten"



Ikaslea matrikula betetzen. | GOIENA

HHIrako, hizkuntza eskolarako eta euskaltegietarako izen emateak

X.G. | ARRASATE

Iraila eta ikasturte hasiera hitzak sinonimoak direla esan daiteke. Hori dela eta, kurtso eta ikastaroak egin nahi dituztenek hainbat zeregin dituzte iraileko lehen egunetan.

Helduen Heziketa Iraunkorrean izena eman nahi dutenek datorren astelehenean izango

dute azken eguna, irailaren 16an. Hizkuntza eskolan izena eman nahi dutenek irailaren 18ra arte, eguaztena, izango dute horretarako tartea.

Euskara ikasi nahi dutenentzat, bi aukera eta bi data: Udal Euskaltegian irailaren 25ean amaituko da epea eta AEKn, aldiz, irailaren 30ean.

Zabaldu berria!

Chic

ESTILISTAK

CERTIFIED ORGANIC

ECO FRIENDLY PRODUCT

SLS & DEA FREE

PARABEN FREE

NOT TESTED IN ANIMALS

Ordutegia:

Astelehenetik asteazkenera: 09:30 – 16:00

Ostegunetan eta ostiraletan: 09:30 – 19:00

Zapatuetan: 09:00 – 13:00

Tel.: 943 04 10 07 | Antso Abarka 6 | Zigarrola | Arrasate

%100 beganoa

den linea organikoa

zure ilearentzat

Zaindu eta babestu

zure ilearen

pH egokiena



MUko jokalaria erasoan Easo taldearen aurkako partidu batean. | IMANOL SORIANO

Euskal Kopa hasiko du MU saskibaloit taldeak

Zapatuan, Easoren aurka lehiatuko da, 18:30ean, Iturripe kiroldegian

IMANOL BELOKI | ARRASATE

EBA mailako MU saskibaloit taldeak denboraldi berriari hasiera emateko Euskal Kopa jokatu du. Aurten, gainera, ez dute kategoria ezberdinetako taldeek nahastuta jokatu. Hau da, EBA kategoriakoak euren artean jokatu dute, eta LEB mailakoak beraien artean.

Lehenengo partidua Easo Loquillo taldearen aurka izango da, zapatuan, 18:30ean, Iturripen; irailaren 17an, berriz, Santurtzi-

ren aurka jokatu dute; irailaren 18an, Zarautzen aurka; irailaren 24an, atsedena izango dute; eta irailaren 25ean, Tolosaren aurka jokatu dute Iturripen, 19:30ean. Finalerako sailkatuko balitz, norgehiagoka urriaren 1ean edo 2an jokatu luke.

Fitzaketei dagokien, Alex Lorenzo berriro itzuliko da taldearen diziplinara. Iaz, lan kon-
tuagatik ezin izan zuen jokatu, baina hasieratik egongo da taldean. Andoni Atxa ere, nahiz eta

juniorra izan, EBako taldearekin entrenatuko da eta denboraldiaren zehar hainbat partidutan parte hartuko du. Bukatzeko, Mario Madinabeitia Gasteizko jokalaria da eta probatzen ari da taldean.

Ligako lehen jardunaldia

Euskal Kopako lehen partidua etxean jokatu dute Easo Loquilloren aurka. Eta, ligako lehen partidua talde beraren aurka jokatu dute, kanpoan.

VIII. Kulture Akustikoa ixteko hiru emanaldi asteburuan

I.B | ARRASATE

Zortzigarren Kulture Akustikoa aurrera doa, eta aste bukaera honetan eskaintza zabala izango da. Egubakoitzean, irailaren 9an, Amorante taldea izango da, 20:00etan. Iban Urizar musikari elgoibartarra izango da oholtzan. Bost kantaz osatutako soinu postalak eratu ditu, bere lana erakusteko. Alaitz Alberdi eta Joseba Agirrezabala-
lagak marraztu eta serigrafia-
tutako postalak dira, eta Rafa Rodrigok origamiz eginiko sobre baten gordeak. Sobre hauek egiteko papera, berriz, Josune Galartzak sortua da. Hala, lau artisten arteko elkarlana sarean batuz osatu ditu kantuak.

Zapatuan, berriz, Morgan taldea izango da, 20:00etan. Musika-
kari madrildarrek pop eta soul
doinuak eskainiko dituzte zuzenean. Carolina de Juan abeslariaren kantak; Paco Lopezek gitarrarekin eta ahotsekin, Ekain Elortzak bateriarekin, Alejandro Ovejero baxuarekin, eta David Schulthess teklatuaz lagunduta joko dituzte.

Amaitzeko, Aurora Beltran

Kulture akustikoaren egitaraua ixteko, Aurora Beltran musikaria izango da domekan, 20:00etan. Belladona eta Tahures Zurdos taldeen buru izan zen, eta 2004a ezkerro bakarlari moduan ari da.

Trikiti Eskolaren zilarrezko ezteiak ospatzen hasiko dira gaur

I.B | ARRASATE

Arrasateko Trikiti Eskola 25. urteurrena ospatzen hasiko da gaur. Egitarau zabala prestatu dute, baina horietatik bitxia *Trikigin* izango da. Trikitia eta gin-tonika batzen dituen ekintza da, eta bigarren urtez egingo da.

Herriko Plazan, 18:00etan hasita, Kajoi, Nahi, Irati, Itzalla, Rumba, Dublin, Aterpe eta Arrasate tabernetako tabernari-
ek gin-tonic erakustaldia egingo dute, zuzeneko trikiti doinuek lagunduta. Hala, *Gure dozuna* jo ekintza egingo dute Trikiti Eskolako ikasleek. Maixa Liza-

rriba Trikiti Eskolako irakaslearen esanetan: "*Gure dozuna* jo ekintza zerbait inprobisatua izango da. Ikasleek nahi dutena joko dute, baina, batez ere, betiko kantuak izango dira. Iaz, ordu erdiko saioa egin zuten, eta aurten beraien kontura ere ari dira prestaketa lanetan. Ea zer moduz irteten den...".

Probatzeko aukera

Nahi duenak trikitia eta panderoa porbatzeko aukera izango du, eta, instrumentuak gustatuz gero, datorren ikasturterako matrikula egiteko aukera izango da Herriko Plazan.



PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

URRIA - EKAINA / Hasiera: Urriak 3
1. maila: Astelehena 18:00
Dantza-txokoa: Astelehena 19:30

Informazioa eta izenematea:

- AED: 943 77 12 28 / aed@aedelkartea.com
- Gazte Bulegoa: 943 25 20 65 / gaztebulegoa@arrasate.eus

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Ford Mugarri eskubaloit taldea hasi da denboraldi-aurreko partiduekin

Zapatuan, Gure Auzune taldearen aurka lehiatuko da Musakolan

I.B | ARRASATE

Arrasateko Ford Mugarri eskubaloit taldea abuztuaren 23tik ari da entrenatzen aurtengo denboraldirako prest egoteko. Astean lau eguneko entrenamendu saioekin, denboraldi-aurreko partiduek jokatzeko hasiak dira.

Zapatu honetan, Gure Auzune taldearen aurka jokatu dute Musakolan. Irailaren 17an, berriz, Jesus Mari Herrero Pitxi torneoa jokatu dute Romo taldearen aurka. Aurten, klubeko talde guztiek hartuko dute parte lehiaketa honetan. Goizean, infantilek, kadeteek eta Gipuzkoako seniorrek, eta arratsaldean, berriz, gazte taldeak eta Euskadiko txapelketako Ford Mugarrik. Infantilek eta kadeteek Aloña Mendi-
ren aurka jokatu dute eta beste hiru taldeek Bizkaiko Romo klubeko taldeen aurka.



Ford Mugarriko atezaina erasoaren zain eskuak zabalik. | EKAITZ FILARMENDI

Irailaren 24an hasiko da liga

Denboraldi-aurrea amaitzean, irailaren 24an hasiko dute liga seniorrek. Lehen partidua, Zumaia Pulpo taldearen aurka, etxetik kanpora.

Jokalaria bila, azpiko mailetan

Infantil, kadete eta gazte mail-
tako taldeetan jokalaria bila ari
dira. Hala, eskubaloian jokatu
nahi duenak Iturripera joan behar-
ko du entrenamendu orduetan.

Danbor soinuekin hasiko dira San Martin jaiak

Datorren eguenetik domekara nobedade askorekin datozen festetan murgilduko dira bergararrak

E.A./M.T. | BERGARA

San Martin jaietan hainbat berrikuntza izango dira aurten, besteak beste, Berakatz-Zopen I. Lehiaketa edota Munibe plazan Xaxau konpartsak jarriko duen txosnagunea. Bertan herri-bazkaria egingo dute zapatuan.

Urtero moduan, danborrada-rekin hasiko dira jaiak, inoiz baino parte hartze handiagoa izango da.

Berrikuntzak azokan

Zapatuko San Martin azokaren baitan, berritasunak ere izango dira aurten. Izan ere, postuak Oxirondo azokan eta bertako plazan jarriko dituzte San Martin plazan beharrean, eta Gazta lehiaketa eta odoloste dastaketa Kata-bia plazan izango dira.

Bestetik, 12:00etan *Erleak eta Eztia* ikastaroa izango da, eta *Etixerako botikina* ikastaroa 12:30ean. Bestalde, lehenengoz Berakatz zopa lehiaketa egingo dute Santa Marinako arkupeetan.



Asteon hasi dituzte danborradarako entseguak. | AMAIA TXINTXURRETA

Konpainia berriak danborradan

Nagusien danborradan hiru konpainia berri izango dira aurten. Lokatza txirrindularitza elkar-tearena, Demasa konpainia eta gazte talde bat. Danborrada eta San Martinen errepresentazioa bukatzean, Joselu Anaiaken kontzertua izango da plazan.

Etzanizi aitortza

Bestalde, aurten bere azken urtea dela eta, Ramon Etzaniz txistulariari aitortza egin nahi dio

udalak, txistulari eta dantzari-ekin batera "ekitaldi xume bat" egingo dute jai hauetan.

Munibeko eskaintza

Txosnagunean hainbat hitzordu izango dira sanmartinetan. Hala, hilaren 16ko gauean, egubakoitza, What A Band eta Bi Bala taldeak izango dira. Hurrengo egunean, berriz, elektrotzaranga arratsalde eta ASEA eta The Riff Trickers gauean. Domekan, berriz, 20:30ean, La Basu eta Aneguria.

Udal euskaltegiak matrikulazioa zabalik dago

M.T. | BERGARA

Udal Euskaltegiak euskarazko A1, A2, B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailetako ikastaroak eskainiko ditu. Matrikulazioa zabalik dago irailaren 27ra arte. Irizar jauregian dagoen euskaltegian bertan egin daiteke. Informazioa: 943764453 edo euskaltegia@bergara.eus.

Udal diru laguntzak

Euskara ikastearren eta ikasketak osagarriak euskaraz egitearren diru laguntzak eman go dituzte aurten ere Udalak.

Hiru laguntza izango dira: bata, Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenentzako (Bergarakoan ikasi dutenendako euskaltegitik ematen dira); bestea Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzen dutenentzako; eta, azkenik, UNEDeko Idazle Eskolako ekintzetako parte hartzaileendako.

Laguntzak pasa den ikasurtereko ikasketei dagokie. Eskaearak hilaren 15era arte aurkez daitezke Udaleko erregistro orokorrean. Info. gehiago: www.bergara.eus/dirulaguntzak euskara, 943779166 edo euskara@bergara.eus.

Konponketa eta txukuntze lanak Agorrosinen

Urtero ikasturte hasieran egiten duten garbiketa orokorrak eragina izango du datozen egunotan Agorrosin Ekintza Guneak eskaintzen dituen hainbat zerbitzutan. Hala, esate baterako, irailaren 16tik 18ra bitartean kiroldegia guztiz itxita egongo da.

Horrez gain, spa gunean irisgarritasuna hobetzeko lanak egiten dihardute langileek, eta egunotan itxita dago; hilaren 18ra arte spa ez da erabilgarri egongo.

Igerileku estali biak hilaren 11ko 14:00etatik irailaren 18ra egongo dira itxita. Kanpoko igerilekua, berriz, irekita egongo da hilaren 15era arte. Irailaren 12tik aurrera arratsalde soilik zabalduko dute, 14:00etatik 19:30era.

Jardueretan izen ematea

Jardueretan izena emateko epea hilaren 6an itxi zuten. Aldiz, igeriketa eskolan, zapa-buruen izen ematea irailaren 9tik aurrera etorri ahala egingo dute.

Agorrosin guneko jarduerak desberdinen hasiera irailaren 19an izango da.



Zure beharretara egokitzen den etxe bat aukeratzeko baduzu, zergatik ez aukeratu hipoteka ere zure neurria

Hipoteka-mailegu pertsonalizatua. Zure beharretara egokitzen dena. Eta baldintza oso lehiakorretan, datozen urteetan zuk merezi bezala bizi zaitezten. Zuk erabaki bezala.

www.bankoa.com

Ibargarai, 3. Bergara.
Tel.: 943 76 38 93

bankoa
CRÉDIT AGRICOLE

"Zezenak gero eta arrisku handiagoa zeukan"

Iñigo Almortza eta ganadutegiko lagunak pozik, Valentzian saria eskuratuta

JULEN IRIONDO | BERGARA

Valentziako Chiva herrian bi sari lortu dituzte Bergarako Zezenak ganadutegikoek: ganadutegi onenarena eta zezen onenarena. Hura "sokamuturraren katedrala" dela kontuan hartuta, pozik itzuli dira etxera Almortza eta kideak: "Esan ziguten denbora asko zela ez zutela halako egun batekin gozatu, halako karrerekin", zioen gustura.

Valentziako, Aragoiko, Nafarroako eta EAEko bina ganadutegik hartu zuten parte Chivako sokamuturretan, antolatzaileek gonbidatuta, eta ganadutegi onena izateagatik 2.000 eta zezen onenagatik 500 euroko sariak irabazi dituzte bergarrek.

Zezen onenaren saria *Sindikalista* izenekoarekin lortu zuten. "Aurretik soka-mutilak joaten dira, eta denak pasa zituen aurretik bost aldiz-edo, eta hori da gauza bat oso gutxi ikusten dena. Oso ondo bukatu zuen ibilbidea, zezena gora etorri zen, gero eta arrisku handiagoa zuen, eta hori han asko baloratzen da". Zezenak nerbioa edukitzea eta azkarra izatea garrantzitsua dela dio Almortzak; Valentziako sokamuturrean zezen bakoitzak ordubete egiten zuen kalean: "Gure hiru zezenek bikain aguantatu zuten".

Halakoek ganadutegiari "prestigio handia" ematen diotela ere bazioen: "Oihartzun bera izan ez



Ganadutegiko kideak. | JULEN IRIONDO




Sindikalista saritua. | J.I.

arren, entzierroetan Iruñea litzatekeena da hura sokamuturrean. Atera kontuak herri honetan nolako afizioa duten: herriak 7.000 biztanle ditu, eta zezenetako peñak 3.000 bazkide, ia herri-tarren erdia, eta sokamutur egunetan egoten dira 20.000 pertsonatik gora". Eta beste datu bat: "EAEn 300 ikuskizun egiten dira urtean, Nafarroan 1.500, eta Valentzian 6.000tik gora. Ikaragarria; egunero daude zezenak kalean".

Lehenengo aldiz lortu dute Bergarakoek horrelako sari garrantzitsu bat; sariak sari, uda honetan lan asko izan dutela-eta, pozik ageri zen Almortza.

NIRE USTEZ

SAIOA GARITANO



Handitzen, handitzen...

A maitu da uda eta denon ahotan ibili den opor osteko sindromea pasatuta dagoela ematen du. Dagoeneko Euskal Herriko haur, nerabe, heldu... egunerokoan murgilduta gaude. Nire txikiek ere ikastolako lehen eguna izan dute gaur. Urduritasuna, alaitasuna, udan ikusi ez dituzten laguntxoak ikusteko irrika... eta momentu berean, nagusiena arduratuta. Ziklo aldaketa, irakasle berria eta etxeko lanen ardura. Inork berari ezer esan gabe bere burua bueltaka hasi da. Norbaiti entzungo ziola argi dago... Ez badituzte ondo egiten? Askok egin beharko dituzte?

Handitzen, bai, handitzen dabil, eta inguruan entzuten duenak ere arduratzen du. Zer esan guraso batek honen inguruan?

Nola lasaitu? 6 urtetxorekin etxeko lanak baino zerbait gehiagotan pentsatu beharko luke, ezta?

Zorionez, azken hilabeteetan artikulu ugari irakurri ditut etxeko lanen inguruan, eta gehienak kontrako iritziarekin. Agian, ikasleak gainkarga hori jasaten du eta ez dauka zertan, eskola barruan egiten dena eta egiten den modua aldatzea izan ahal da aukera. Honekin batera, haurren denbora librearen murrizten dugu, familiarekin egoteko denbora murrizten da; ikasteak haurraren interesa piztu behar du eta etxeko lanekin kontrakoa lortzen dela uste dut.

Handitzen doa bai... baina oraindik ere jolastea, ondo pasatzea... izan beharko litzateke bere ardura handiena. Lanak, lanak heltzen dira eskatu gabe ere. Gozatu eta asko jolastu! hauek izan dira gaurko egunean agurtzeko azken hitzak.

"Lanak, lanak heltzen dira eskatu gabe ere"



Emon taldea 'Sua' biraren azken txanpara iritsi da. | IMANOL SORIANO

Gaur gauean gaztetxean piztuko du Emon taldeak 'Azken sua dantza'

Gaur, eguna, Bergarako Emon taldeak kontzertua eskainiko du kartzela zaharrean, Moittuai! eta Generacio 3 taldeekin batera. 22:00etan izango da hitzordua, eta sarrera doan izango da. Ikasturte hasiera samurrago egingo dute, musikaz eta dantzaz lagunduta.

Bira amaiera

Kontzertu honekin hasiko du Emonek *Azken sua dantza* izen-

datu duten kontzertu sorta, *Sua* biraren azken lau emanaldiak, hain zuzen. Gaurkoaren ostean, Kataluniara abiatuko dira, Montblanc herrian joko baitute irailaren 10ean.

Horren ostean, urriaren 2an Bergaran ospatuko den Kilmetroak jaian izango dira, eta azkenik, birari bukaera boro-bila emateko, Buenos Airesen, Argentinako hiriburuan, izango dira azaroan.

Jon Mujika txapeldun Bermeon

Ordubete eta 45 segundotan osatu zuen Bergarako igerilariak Bermeotik Izaro irlara joan-etorria Salome Campos zeharkaldian, eta ondorioz, txapela eraman zuen. Horrez gain, bere pisua atunetan jaso zuen sari gisa. 5.000 metroko proba eginda, bigarrenari minutu eta erdiko tartea atera zion.



GOIENA

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

ESPOLON
School of English
BERGARA

Ingeles klaseak
Matrikula epea zabalik

- Haurrak (2 urtetik gorakoendako)
- Gazteak
- Helduak
- Azterketa ofizialeterako prestakuntza
- FCE eta CAE azterketetarako ikastaro trinkoak irailean

Informa zaitez:
Ibargarai, 31 behea BERGARA
Tel.: 943 76 03 53 • espolon@euskalnet.net

Kaabestri Ensemble taldeak kontzertua eskainiko du zapatuan

Udalak irailean antolatu duen Musika klasikoari eskainitako zikloaren baitan, Kaabestri Ensembleren emanaldia izango da etzi, zapatua, Mariaren Lagundiko elizan, doan. Hari eta perkusio instrumentuak izango dira protagonistak kontzertuan, goi mailako musikarien eskutik.

Joseba Leturiaren argazki erakusketa ikusteko azken egunak

Joseba Leturia argazkilari bergararraren *Nire ikuspuntua* mostra ikusgai egongo da Aroztegin domekara arte, irailak 11. Erakusketaren gaia arkitektura modernoa da; hala, Euskal Herrian zein munduko hainbat txokotan eraikin ikusgarriei ateratako argazkiak ikus daitezke.



Osintxuarrak moztortuta Soraluzera bidean. | IMANOL SORIANO



Osintxun Musikara! lehiaketako partaideak. | JON OLIVARES



Patatak osintxuar erara prestatzen. | JULEN IRIONDO



Unai Zubizarreta Urrezko Kofrade izendatu dute. | I.S.28

Festa giro ederrean ospatu dituzte kofradixak Osintxuko bizilagunek

Eibarrera joan zen musika lehiaketaren lehen edizioko sari nagusia

UBANE MADERA | OSINTXU

Kofradixak izan zituzten asteburuan Osintxun, egubakoitzetik domekara bitartean. Mozorrotuta eta bizikletan, umoretsu hasi zituzten jaiak, eta horrela bukatu ere, ohiko ekintzak nobedadeekin tartekatuz.

Horien artean, nagusia izan da Osintxun Musikara! lehiaketaren lehen edizioa. Finaleko bost taldeen artean –parte hartu hogeik egin zuten– The Vartools eibartarrek eskuratu zuten 500 euroko saria. Bigarren sailkatua, berriz, Hoax Attack taldea izan zen.

Ohiko ekitaldien artean, berriz, patatak osintxuar erara prestatzea izan dute aurten sukaldaritza lehiaketako lana; hamar parte-hartzaile animatu ziren zeregin horretan eta 150 lagunren artean jan zuten prestatutakoa, afaritan.

'Garden' ikuskizunerako sarrerak salgai

KMK 16k irailerako antolatutako Kultura Hamabostaldiko saiorik nabarmenena da

KOMUNITATEA GOIENA | ARANZADI
IKASTOLA | BERGARA

Alos Quartet soka lauakote tolosarren azken diskoaren izenburua da *Garden*, baina hori baino askoz gehiago da irailaren 24an Bergarara helduko den ikuskizuna. Izan ere, musikaz gain, beste osagai batzuk ere izango ditu eta puntako talde eta bakarlariak batuko ditu agertokian: Eñaut Elorrieta Ken Zazpi taldeko

konpositore eta abeslaria; Oreka TX txalaparta taldea eta Edu Murua-mendiaratzen Aukeran dantza konpainia.

Luxuzko kartela, 15 euroren truke, Bergarako Udal Pilotalekuan, irailaren 24an, larunbata, 22:30etik hasita. Sarrerak salgai daude, dagoneko, www.pikupe.com webgunean edo Pikupe Produksioak-ek Bergaran daukan egoitzan.

Hirugarren geldialdia

Alos Quartet taldeak hainbat kolaborazio egin ditu, askotariko artistekin. *Garden* ikuskizuna, Bergarara ekarriko duten formatuan, Bilbon estreinatu zuten apirillean eta abuztuan Ezpeletan eskaini. Hala, Bergaran egingo dute hirugarren geldialdia. Hortaz, aukera bakarrenetakoa da punta-puntako ikuskizunarekin gozatzeko.

Lokatzaren bazkarirako izen-ematea zabalik da

Lokatza Ziklismo Eskolaren 40. urteurreneko ospakizunen barruan egingo dute otordua

U.M. | BERGARA

Datorren azaroaren 19an bazkaria egingo du Lokatzak, 40. urteurrenaren harira. Hori horrela, era batera edo bestera, Lokatzaren bueltan ibili diren lagun guztiak daude bertara gonbidatuta eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea, urriaren 19ra arte. Honako leku hauetara jo daiteke izena emateko: I2 kirolak, Igartua Bici-

precision eta Gracian Mertzzeria dira izena emateko lekuak.

Iragarritakoaren arabera, bazkariak gainera, beste sorpresa batzuk ere izango dira egun horretan. Besteak beste, bazkariaren aurretik irteera egingo dute bizikletaz. Tertulia bat izango da, txirrindularitzarekin lotutakoa, eta 40 urteon gaineko liburu bat prestatzen dabilzala jakinarazi dute.



Lokatzaren beste bazkari bateko argazkia. | LOKATZA

OHARRAK

LAN ESKAINTZA JARDUNEN

Jardun euskara elkarteak aisialdi arloan lan egiteko langilea behar du. Beharrezkoak izango dira: aisialdiko begirale titulua, gidabaimena eta autoa eta euskara maila handia. Interesatuak aurkeztu curriculum Jardunen bulegoan (kultur etxean) edo bidali e-postaz jardun@topagunea.com helbidera. Azken eguna: irailak 13.

ODOLA EMATEA

Irailaren 14an, eguaztena, osasun etxean. 18:00etatik aurrera.

KAFE KONPON

Irailaren 14an, eguaztena, San Josepe elkartearen. 16:00etatik aurrera.

EGUTEGIKO ARGAZKIAK

2017ko udal egutegirako argazkiak aukeratzeko lehiaketara hilaren 25era arte bidali daitezke lanak. Oinarriak www.bergara.eus webgunean.

POSTAL LEHIAKETA

Irailaren 18ra arte bidali daitezke lanak Jardunera. Oinarriak eta informazio gehiago jardun.eus webgunean.

1948KO KINTOAK

Bizkaiko kostara irteera urriaren 8an. Apuntatzeko Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontu korrontean 70 euro sartu irailaren 30a aurretik.

ERRETZEARI UZTEA

Erretzeari uzteko taldeko ikastaroa hasiko dute irailaren 22an osasun etxean. Doan da eta edozein apuntatu daiteke. 695742313 (Jose Ramon Bardeci) edo kuxi33@hotmail.com.

DYNAMO ZINEKLUBA

Gaztetxeko zinekluba berriz ere martxan. Hurrengo filma: *Happy Accident*. Irailaren 14an, 21:00etan. Antolaketan parte hartu nahi dutenei dei egin diete Facebook bidez kontaktuan jartzeko.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraiaeta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

LIKIDAZIOA
%50 era arte



• JAUJA KIROLAK •

Irizar Pasealekua 1, beheka - BERGARA - Tel.: 943 76 14 95

200 herritar inguruk parte hartu dute 'Odisea' filmaren prekuelan

Aurrestreinaldia hilaren 17an da Santan Anan eta ikusteko sarrerak salgai daude bost eurotan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

"Azken ukituak ematen ari gara filmari. Aste honetan bukatu gura dugu", aitortu du astelehenean Kepa Aranburuk, *2057. Odisea bat kanposantuan* filmaren zuzendariak.

200 herritar

Duela hamahiru urte zuzendu zuen izenburu hori duen filma Aranburuk. Abentura hartan ondo pasa zuten, eta, errepikatzeke asmoz, proiektu berri honetan hasi ziren orduko gidoigile Ibon Alberdi eta biak duela hiru urte.

Film labur bat izan behar zuena oraindik izenburu jakinik ez duen ordubeteko film luze bihurtu da. 6 eta 83 urte arteko 200 herritar inguru ibili dira



Filmaren eszena bat grabatzen | EKAIN MUÑOZ

elkarrekin proiektua egiten: 80 bat aktore, 100 figurante inguru eta 40 laguneko lantaldea, gutxi gorabehera. Uztailen egin dituz-

te grabazioak. "Hiru asteburutan egitea aurreikusten genuen, baina, azkenean, hamazazpi egun behar izan genituen", dio Aran-

buruk. Plano pare bat izan ezik, beste guztiak Oñatin grabatu dituzte; Olateko zentrolean, San Martingo ermitan eta Araotzen, esaterako.

Umorezko filma dela dio zuzendariak, baina Oñatitik kanpora ez dela ondo ulertuko uste du. "Film ona egitea hirugarren edo laugarren helburua zen guretako. Giro ezberdinetan bizi garen herritarrek elkartu gara, kuadrilla askotako jendea, eta horrekin oso gustura gaude. Gainera, oso ondo pasa dugu", dio Aranburuk.

Irailaren 17an aurrestreinaldia egingo dute Santa Anan eta sarrerak salgai daude bost eurotan Txokolateixian, Bogan, Arranon, Luisenean eta Onan. Estreinaldia San Migel egunean izango da, txosnetan.

'Lantzean behin' ikusteko sarrerak salgai

Irailaren 24an estreinatuko dute Olaitturri kultura elkartearen lan berria

O.E. | OÑATI

Olaitturri kultura elkarteak beste antzezlan herrikoi bat prestatu du. *Lantzean behin* du izena, eta Oñatin bereziki hizkuntzaren alde aritu direnak ezagutzera eman gura ditu. Hala, Salbatore Mitxelena, Luis Villasante, Txomin Agirre eta Bitoriano Gandiaga pertsonaiak agertuko dira

antzezlanean. Aktoreak, aurreko antzerkietan bezala, oñatiarrak izango dira.

Aurreko lanak bezala, hau ere Iñaxio Irizarrek zuzendu du eta ohiko lagunak izan ditu alboan: Ana Mari Markuleta, Maritxu Baños, Ixidro Palazin, Jabi Altube, Jabi Atxa, Maribi Korkostegi eta Jose Mari Anduaga, besteak beste.

Eszenaz gain, olerkiak, abestiak eta ipuinak ere egongo dira antzezlan honetan. Jose Mari Anduaga, Iñaxio Ibarrondo eta Ruper Ordorika arduratu dira, esaterako, partiturez.

Sarrerak

Entseguak uda aurretik hasi zituzten eta ia guztia dute erabat prest

estreinaldi egunerako. Irailaren 24an izango da lehen emanaldien eguna, herriko jai nagusiak hasi baino asteburu bat lehenago. Santa Ana antzokian izango dira, eta, aurreko saioek bezain besteko erantzun zabala izango duela pentsatuz, bi emanaldi egingo dituzte egun berean: 19:00etan lehenengoa eta 22:00etan bigarrena.

Sarrerak Txokolateixian daude dagoeneko salgai bost eurotan. Sarrerarekin batera antzezlanaren inguruko informazioa batzen duen liburua oparituko dute.



Abuztuan jarri dituzte bide parrilla gehienak. | ALOABEL

Ganadua ez pasatzeko bide-parrillak jarri dituzte

Aloñako abereen elkarteko kideek jarri dituzte, auzolanean, udalaren laguntzarekin

O.E. | OÑATI

Animaliak ez pasatzeko bideko bost parrilla, paso kanadarrak, jarri dituzte herriko beste hainbat gunetan: Andolatzan, Ursalton, Auntzolan, Maala-Errekan eta Argiñaitzen. Seigarrena bihar,

egubakoitza, jarriko dute, Kobatxon. Aloabel-eko (Aloñako abereen elkarte) kideek egin dituzte lanak, auzolanean.

Horrelako neurriak jartzeko eskaera bat baino gehiago jaso zuten Aloabel elkartearen herriko

ganadu jabeen aldetik eta lanak auzolanean egitea adostu zuten udalarekin. "Udalak jarri ditu baliabideak, makineria eta hormigoia, esaterako. Eta elkarteko kideon artean egin ditugu lanak", dio Aloabel-eko zuzendaritzako kide Jon Ander Irizarrek.

Zuloak

Udako lanak eginda, udazkenekoak antolatzeke bilera egingo dute laster elkarteko zuzendaritzako sei lagunek Baserritarren Elkartean. "Joan den udazkenean ere ibili ginen bideak txukuntzen, eta aurten jarraituko ditugu lanak. Gune batzuetan dauden zuloak ere konpondu gura ditugu. Ganadua zuloetara jausi ez dadin, tapatu egin ditugu, eta udazkenean konpontzea da asmoa", dio Irizarrek.

Ganadua Aloñako larreetara eramaten duten herritarrek dira Aloabel elkarteko kideak, 50 inguru. Sasoi honetan ganadua goian dute denek eta bakoitzak ondoen ikusten duenean jaitsiko ditu behe-er, etxaldera. Otsailaren bukaeratik maiatzaren 1era ez da animaliarik egoten goian, mendiko lurrek atsedean har dezaten.

Aisialdirako begirale titulua Oñatin atera daiteke berriz

O.E. | OÑATI

Haur eta Gazteen Aisialdirako Begiralea izeneko Eusko Jaurilaritzak homologatutako titulu ofiziala Oñatin eta euskaraz eskuratzeko aukera eskaintzen du hirugarren urtez Oñatiko Udalak. Urria eta apirila bitartean egingo da ikastaroa. Guztira 2.014 ordu teoriko izango ditu eta 120 praktika ordu (praktikak egiteko derrigorrezkoa da 18 urte beteta izatea). Ikastaroaren prezioa da 500 euro eta udalak diruz lagunduko du: langabeen eta ikasleen matrikularen %75 ordainduko du eta gainerakoena, %50.

Ikastaroari buruzko informazio bilera egingo dute irailaren 15ean, 18:30ean, Euskaldun Berria gelan.

Eskuz egindako lanak erakutsiko dituzte Pake Leku elkarteak

Eskuz egindako hainbat lanen erakusketa zabalduko dute Pake Leku elkarteak datorren astean. Orratz lanak, margoak eta bitxiak egongo dira, besteak beste, ikusgai. Erakusketa irailaren 13tik 16ra egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara. Ikasturte berrian egingo dituzten ikastaroetako izen-ematea ere zabalik dago. Elkartearen bertan eman daiteke izena.

Plazako dantza tradizionalen saio irekia eguaztenean da

Plazako dantza tradizionalen ikastaroa eskainiko dute ikasturte honetan Jose de Azpiazu musika eskolan. Nolakoa izango den ikusteko saio irekia antolatu dute. Eguaztenean izango da, irailak 14, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Gustatuz gero irailaren 30a bitartean eman daiteke izena Jose de Azpiazu musika eskolako bulegoan.

Haurren Eguneko dantzariak etxean hartzeko deia

Irailaren 18an egingo da aurtengo Haurren Eguna eta parte hartuko duten neska-mutikoak etxean hartu eta bazkaltzera gonbidatu nahi duten herritarrek Oñatz dantza taldekoekin harremanetan jar daitezke irailaren 9a aurretik. Aurten hamalau dantza talde arituko dira eta egun guztiko egitaraua prest dute herriko dantzariak.

Domekan bukatuko da aurtengo bainu denboraldia Usakon

Domekan, irailak 11, bukatuko da aurtengo udako bainu denboraldia Usakon. Hau da, domekan eskainiko da azkeneko sorosle zerbitzua. Ordu-tegia ohikoa izango du: 15:00etatik 20:00etara.

Zubikoa kiroldegian, aldiz, irailaren 25era arte mantenduko da zabalik igerilekutik kanpoko belardira joateko pasabidea.

Hasiberriendako yoga ikastaroak antolatu dituzte irailerako

Hasiberriendako yoga ikastaroa antolatu dute Oñatiko yoga eskolan. Datozen bi asteetan eskainiko dute: irailaren 12tik 15era eta 19tik 22ra. Ordu-tegia izango da: 19:30etik 21:00etara. Informazio gehiago jakin gura izanez gero edo izena emateko bideak dira: yogaonati@gmail.com helbidea edo 610 953 794 telefono zenbakia.



Final-laurdenetako partidu bat, pasa den egubakoitzean. | OIHANA ELORTZA

Dagoeneko azken txanpan sartu da Herriko Pilota Txapelketa

Mutiletan zortzi bikote besterik ez da gelditzen eta nesketan, berriz, lau

ENEO AZURMENDI | OÑATI
Ekainean hasitako bide luzea amaierara iristen ari da; izan ere, dagoeneko azken txanpan sartuta dago Herriko Pilota Txapelketa.

Mutilei dagokienez, zortzi bikote gelditzen dira final-laurdenak jokatzeko: Perez-Aranburu, Baseta, Amilleta, Aramendia-Larrea, Aia-tui-Arregi, Biain-Anduaga, Fernandez-Pruluns, Aberasturi-Yolo eta Altuna-Ormazabal. Azken hauek aste honetan bertan sailkatu dira. Nesketan, berriz, finalaurrekoak bakarrik falta dira eta lau bikote hauek arituko dira final han-

luns, Aberasturi-Yolo eta Altuna-Ormazabal. Azken hauek aste honetan bertan sailkatu dira. Nesketan, berriz, finalaurrekoak bakarrik falta dira eta lau bikote hauek arituko dira final han-

dira sailkatzeko borrokan: Aran-Rebeka, Intxausti-Larrea, Igone-Mireia eta Eider-Alazne.

Arazorik gabe
Txapelketa hasi zenean, bikote askok eman zuten izena –mutiletan 43 bikote eta nesketan 6–, eta, horren ondorioz, arduratuta azaldu zen antolakuntza. "Hasiera batean, kezka bat sortu zitzaigun. Izan ere, partidu asko jokatu behar ziren eta data aldetik justu ibiliko ginela pentsatu genuen", azaldu du Iñigo Igartuak, antolakuntzako kideak. Hala ere, guztia "espero baino hobeto" irten da eta, aurreikusitako moduan, hila-ren 30ean izango dira bi finalak –neskena zein mutilena–.

Egun handia
Behin herriko jaietan murgilduta izango dira bi finalak, eta, hori aitzakia hartuta, egun osoko festa izatea gura dute antolatzaileek. "Bi finalak egun berean egin nahi ditugu. Plazako pilotalekuan ahalik eta jende gehien batzea da gure asmoa. Aurten, gainera, bi sexu-etako finalak edukiko ditugu eta guretzat oso pozgarria da hori, iaz mutilen txapelketa izan genuelako bakarrik. Alde horretatik, final eguna osatzea lortu dugu", adierazi du Igartuak.

Erantzun ona
Herritarrek ere erantzun dutela azpimarratu nahi izan du Igartuak. "Jendea gustura etortzen da partiduak ikustera eta hori pozgarria da guretzat", dio.22

Jaiak dituzte Atzeko kalean eta Arantzazu auzoan

O.E. | OÑATI
Ohiko zinta lasterketarekin emango diete jaiak hasiera egubakoitzean Atzeko kalean, 16:00etan. Haurrendako jolasak egingo dituzte gero, eta iluntzean erraldoiak eta buruhandiak aterako dira kalera. 22:30ean, No Regret, Revolta Permanent eta Ska-P (bertsioak) taldeen kontzertuak hasiko dira. Zapatu eguerdian auzo bazkaria egingo dute eta arratsaldean, sokamuturra, poneyak, garagardo dastatzea, eta elektro-txaranga egongo dira. Gauerdian piroteknia saioa eta zezensuzkoa

egongo dira eta ondoren Imuntzo eta Belokiren emanaldia. Domekarako antolatu dituzte mus txapelketa, txirrindulari proba eta Gauargi taldearen kontzertua.

Omenaldia
Arantzazuko auzo-etxean patata-tortilla lehiaketarekin hasiko dituzte jaiak egubakoitz iluntzean. Zapatuan auzo bazkaria egingo dute eta domekan omenaldia egingo diete presoek eta 100 urte bete-ta dituzten bi auzotarri: Asun Arregiri eta Benita Elortzari. 12:00etan izango da auzo-etxean.

Pintxo-pote solidarioa egingo du Hotz Oñatik

O.E. | OÑATI
Hotz Oñati elkarteak antolatuta, pintxo-pote solidarioa egingo dute. 19:00etan hasiko dute Foruen plazan, eta herriko tabernetan zehar jarraituko dute. Batutako dirua errefuxiatuendako izango da. Bestalde, irailaren 16ra arte luzatu dute elkartasun motxilen kanpaina. Ideiak zabalkundea izan du, eta, Oñatin ez ezik, Bergaran, Eibarren, Azkoitian eta Mundakan ere ari dira haur errefuxiatuendako motxilak batzen.



Jasotako materiala. | HOTZ OÑATI

NIRE USTEZ

MIEL GURIDI



'Burkini'-a askatu?

Jakina da oporretan komunikabideek ez dutela esateko handirik izaten eta zenbait gertakizunek izugarrizko oihartzuna hartzen dutela. Horietako bat izan da Frantziako hegoaldeko zenbait hiriburutako alkateek *burkini*-aren erabilera debekatu dutela. Horren ondorioz zenbait isun jarri dituzte eta jendarmeak ere ikusi ditugu emakume bati zenbait arropa eranstera behartzen.

Horren harira, Florentziako iman batek hondartzan olatuekin jolasean ari ziren mojen argazkia argitaratu du Facebookeko bere profilean. Bere asmoa eztabaida positiboa sortzea zela esan du, eta gogorarazi nahi izan du mendebaldeko zenbait balio kristautasunean dadelat erroturik, eta badirela balio horiei jarraituz, ia gorputz osoa, burua barne, estaltzen duten pertsona kristauak.

Egia esan, Frantziako alkate horien jarrera ez zait egokia iruditzen. Askatasunean sinesten dut eta pertsona bakoitzak hondartzarako erabili nahi dituen arropak aukeratzeko askatasuna izan beharko luke, baita biluzik ibiltzekoa ere. Debekuak, azkenean, nahi ez diren ondorioetara eramane gaitzake, muturreko jarrerak indartzera esate baterako.

Burkini-aren erabilera askearen aldekoa naiz, bai, baina beti ere, norberak askatasunean hartutako hautua bada. Emakume batek, musulmana izan edo ez, jantzi hori aukeratzen badu hondartzan erabiltzeko, bere erabakia izan dadila, eta ez bikotekide, guraso edo bestelako batek behartuta, edo inguruan izan ditzakeen muturreko islamdarrek esango dutenaren edo egingo diotenaren beldur.

58. San Migel saria jokatu da bihar, zapatua

Ziklismo lasterketa honetan, juniorrak eta bigarren mailako kadeteak arituko dira. Irteera Unibertsitate hiribidean izango da, 10:00etan, eta 88 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Helmuga ere leku berean izango da. Ulma taldeko txirrindulariak Arregi, Igartua, Murgiondo, Txintxurreta, Gartzia anaiak, Oroz, Axpe eta Otero izango dira.

Fitnessa egiteko ate irekiak egongo dira datorren astean

Zubikoa kiroldegiko fitness eta gimnasia zerbitzu-etan izango da, irailaren 12an, 13an eta 14an. Horrez gain, pilates zerbitzua jasotzeko izena aurrez eman behar da eta gainontzeko ekintzetan ere, lekua ziurtatzeko, izena ematea gomendatzen da. Zerbitzuak proba modura izango direnez, doakoak dira.

Eskola kirolean parte hartzeko izen ematea zabalik dago

Irailaren 23ra arte egongo da irekita. Astegunetako zerbitzuak urriaren 10ean hasiko dira eta asteburuetakoak, 15ean. Bestalde, bi kirol eskolak 2016/2017 denboraldiari hasiera emango diote: karateak eta saskibaloiak, hain zuzen. Informazio gehiago, Zubikoa kiroldegian edo Aloña Mendi Kirol Elkarte-ko bulegoetan.

Mendi martxarako izen ematea irailaren 11n bukatuko da

Irailaren 17an egingo dute Oñatiko bigarren mendi mar-txa eta oraindik aukera dago bertan parte hartzeko izena emateko. Horretarako aukera Aloña tabernan edota *www.kirolprobak.com* webgunean egongo da, datorren domekara bitartean. Antolatzaileak hasi dira, dagoeneko, ibilbidea markatzen.

Maidar Usandizaga garaile Azkoitian, Formula Librean

Azkoitiko VIII. Rallysprinta jokatu zen pasa den zapatuan, eta, Formula Libre kategorian, Ekain Eizagaetxeberria eta Maidar Usandizaga bikoteak irabazi zuen, Mitsubishi EVO V autoarekin. Oñatiarra kopolotu aritu zen. Bigarren postua, berriz, Iban Ruiperezentzat eta Iker Arruabarrena-rentzat izan zen.

Errefuxiatuen egoeraz gogoeta egiteko hitzaldia

Amsogra elkartekoak haiekin izan ziren ekainean Grezian eta bizitakoaren berri emango dute martitzenean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Grezian, Chios uhartean, izan ziren ekainean Debagoieneko ospitaleko larrialdi zerbitzuetako Iñaki Agiriano medikua eta Inma Escribano erizaina. Amsogra gobernuz kanpoko erakundeko kideek hamabost egun egin zituzten Itsasoko Laguntza Humanitarioa elkartekoekin batera errefuxiatuen artean, eta han bizi izan zutenaren berri eman gura dute orain. *Refugiados. Una vergüenza más del siglo XXI* izenarekin martitzenean, 19:00etan, egingo dute argazkiekin lagundutako hitzaldia, Arkupen.

Gobernuei exijitu

Errefuxiatuen arazoaren jatorriaren gainean egingo dute berba eta ezagutzera eman zergatik alde egiten duten euren herrialdeetatik; izan ere, Agirianok uste du herritarrengana oso informazio gutxi iristen dela. "Horrez gain euren egoera zein den egun jakinaraziko dugu eta Itsasoko Laguntza Humanitarioan zein lan egin dugun erakutsi", dio.

Era berean, uste du gertatzen dabilenaren kontzientzia handirik ez dagoela: "Gero eta zatiketa handiagoa dago. Hemen ez gara konturatzen zer daukagun

eta ez dakigu zelan bizi diren gu bezalakoak munduko leku askotan". Eta norberak zer egin dezakeen adierazi du: "Bakoitzak bere gobernuari exiji diezaiola neurriak hartzea, eta lehenbailehen gainera, geroago eta gogorragoa delako errefuxiatuen egoera".

Hitzaldiarekin, gainera, herritarrei ikusarazi gura diete errefuxiatuak bertan daudela eta Europak ez duela ezer egiten: "Beno bai, berotan itzularazi". Herritarren galderak erantzuteko gertu datozela adierazi du, baita horien iritziak eta ekarpenak jasotzeko ere.



Bizikleta azoka iaz, Herriko Plazako arkupeetan. | MIRARI ALTUBE

Mugikortasun Astea bizikletak oinarri hartuta

Urkulura irteera egingo dute familia giroan hilaren 18an eta bigarren eskuko azoka 21ean

M.A. | ARETXABALETAKO

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat egingo dute, beste behin, Aretxabaletan, irailaren 18tik 21era bitartean. Aurtengo leloa da *Mugikortasun Adimentsua. Ekonomia Indartsua*, eta helburua Europako herrietan eta hirietan garraibide iraunkorren erabilera bultzatzea. Hori horrela, bizikleta martxa egingo dute batetik, eta bigarren eskuko azoka, bestetik.

Bigarren eskuko azoka

Irailaren 18an, domekan, Urkulura egingo dute bizikleta martxa. Familia giroko irteera izango dela iragarri dute antolatzaileek, hau da, Guraso Foroak (Arizmendiko eta Pausokako gurasoak, Gurabarri eta Batera guraso elkarteak, Kukumiku

eta Aretxabaletako udala). 10:00etan Herriko Plazan elkartuko dira eta handik Urkulura igo; bueltan Torrebasora (Eskoriatza) joko dute, gero etxera itzultzeko.

Bigarren eskuko azoka, ostera, irailaren 21ean, eguaztenean, izango da, Herriko Plazan (17:00-20:00). Bizikletak, patinak, patineteak, kaskoak eta beste hainbat kontu saldu ahal izango dituzte herritarrek, haurren materiala zein helduena. Material hori Udalak aurretik jasoko du, irailaren 19an, astelehena, hain zuzen ere (11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara), Arkupeko harreran.

Udala arduratuko da materiala jaso eta saltzearekin, baina prezioa jabeak jarriko dio. Saltzen ez dena jabeari itzuliko diotela iragarri dute.



Iñaki Agiriano eta Inma Escribano (atzean) Chios uhartean, errefuxiatuen artean. | IÑAKI AGIRIANO

Kurtzebarri Eguna ospatuko dute domekan, Murruxio MEk deituta

M.A. | ARETXABALETAKO

Domekan, irailaren 11n, ospatuko dute mendizaleek eta herritarrek Kurtzebarri Eguna. Umeek, gazteek zein helduek ez dute hutsik egingo beste behin eta gogotsu igoko dute tontorrera. Murruxio Mendizale Elkarteko kideek salda eskainiko diete han, 10:30ean, baina

mezarik ez da izango aurten. Gero mokadutxoak banatuko dute elkartutakoaren artean: txorizo muturra eta gazta, xanpainak lagun eginda. Etxerako bidean, oster, bermuta hartuko dute Mendiola auzoan, 13:00etan. Eguraldi txarra eginez gero aldaketak egin ditzakete antolatzaileek.

OHARRAK

DOMKAN UMEENDAKO TXOTXONGILOAK

Panta Rhei txotxongilo talde arabarrak *Auzokideak* lana eskainiko die neska-mutikoei domekan, hilaren 11n, 17:00etan, Arkupen (sarrera, 3 euro).

BEINKE-LORAMENDI DANTZA ENTSEGUAK

Sanmiguel jaietan, irailaren 24an, urtero legez egingo duten Beinke-Loramendi dantza gogora ekartzeko entseguak antolatu ditu Loramendi elkarteak. Martitzenetan dira, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

JOLASTEN TAILERRA

Hezkuntza sortzailean oinarritutako jolasteko tailerra egingo dute urritik ekainera bitartean Aozaratzako abade-etxean, martitzenetan (17:30-19:00); prezioa da 40 euro. Izena emateko eta argibideak eskatzeko hona bideak: 943 79 06 03 edo izaditamaia@gmail.com.

Joandako auzotarrak gogoan ospatuko dituzte jaiak Areantzan

M.A. | ARETXABALETAKO

Egitarau dotorea gertatu dute, beste behin, Areantza auzoan Agorreko andramaixak ospatzeko. Kanpaiek iragarriko dute jaien hasiera gaur, eguena, (18:30) eta ondoren meza izango da (19:00). Bukatutakoan tantaia jasoko dute eta Martin Kabarrirxa pertsonaia auzora ekarri.

Bihar, auzo afaria egingo dute (20:30), eta aurreko urteetan baino gutxiago elkartuko dira: "Auzoa triste dago aurten bi auzotar joan zaizkigulako. Hala ere, 35en bat elkartuko garelakoan gaude", jakinarazi du Julen Abasolok.

Emanaldi akustikoa

Zapatuari txistulariek egingo diote ongietorria (10:30) eta eguerdi partean (12:00) meza esango dute Basotxo erretiratuen elkarteko katu taldeak lagunduta.

Meza bukatutakoan *Arientzarrok* ekitaldia izango da elizan bertan. Orain dela hiru urte hasi zuten *Arientzarrock* emanaldia

moldatu egin dute aurten: "*Arientzarrok* izango da *Guztiak gogoan* leloarekin, eta rock kontzertua beharrean joandako auzotarrak gogoan izango dituen ekitaldi akustikoa da. Bi kantu abestuko ditugu guztiok elkarrekin", argitu du Abasolok. Ondoren mokadutxo eskainiko dute auzoko jeneroarekin eta indarrak hartutakoan (13:45) 32. ginkanari ekingo diote. Auzora gerturatzen direnen artean, gainera, Lau t'erdiko pilota txapelketaren finalerako bi sarrera zozketatuko dituzte. Arratsaldean (17:45), oster, auzoko jolasetan jardungo dute.

Domekan, Kurtzebarri

Domekan Kurtzebarri Egunarekin egingo dute bat. Iturriko erromaran elkartuko dira (09:30)oinez joango direnak eta tontorrera iritsitakoan auzotarren argazki ofiziala aterako dute (12:00). Martin Kabarrirxa tantaitik jaitsi eta etxeratuta (14:00) bukatutzat eman- go dituzte jaiak.

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Astelehenean, hilaren 12an, jarriko du abian UDAk futbol eskola

Aretxabaleta kirol elkarteak astelehenean, irailaren 12an, ekingo dio futbol eskolari. 16:45ean dute hitzordua Ibarra futbol zelaian futboleak hasi gura duten neska-mutikoei, hau da, 2006 eta 2008 bitartean jaioetakoak. Arduraduna izango da Julen Eraña eta argibideak gura dituztenek harengana jo dezatela.

'Ostegun Bidaiariak': hirugarren edizioa ate joka dator

Hainbat eskoriatzarrek egin dituzten bidaiei buruzko argazki diaporamak antolatu dira

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Oporretatik bueltan, datorren urteko oporrak pentsatzen hasiak dira herritar asko. Horri laguntzeko, Eskoriatzako Udalak *Ostegun Bidaiariak* egitasmoa jarri du abian. Aurtun, hirugarren edizioa da, eta hiru bidaia kontatuko dituzte Eskoriatzako kontalariak diaporamak erabiliz. Bidaiak 2014 eta 2016. urteetan egindakoak dira, eta hitzaldi bakoitza herriko eraikin ezberdin baten eskainiko da.

Lehenengo kontakizuna irailaren 15ean izango da Ibarraundi museoan, 21:30ean. *Ibiza piraguan* bidaia kontatuko dute Manex Agirregabiria, Xabier Arenaza eta Ander Agiriano. 2014an egindako bidaian, irla beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera dagoe la azalduko dute: festak alde batera utzi, arrauna hartu eta bertako kala eta bizimodu berezia ikusteko opor aktibo eta desberdina azalduz.

Bigarren bidaia, berriz, irailaren 22an izango da Zaldibar antzokian, 21:30ean, eta Aintzane Lucero eta Gotzone Elordik egingo dute beraien oporren kontakizuna. *Namibia, Botswana eta Victoria ur-jauzia* abenturan, Afrikarik basatienea ezagutu dute. Paisaia eta safari ederrak, etnia ikusgarriak eta izarrez apaintutako zerupean, sutondoaren goxotasunean pasatako gauak nolakoak izan ziren adieraziko dute... besteak beste.

Azken bidaia Aintzane Agiriano kontatuko du irailaren 29an, 21:30ean, Huhezín. *Tanzania, Kilimanjaro, safaria eta Zanzibar irla*-n ikusitakoak eta bizitakoak kontatuko ditu. Tanzaniak asko du bidaiariari eskaintzeko, besteak beste: mendia (Afrikako sabaira, Kilimanjarora igotzea), sabana (Ngorongoroko kraterrean animalia basatienea ikustea) eta hondartza (Zanzibar irlako hondartza amaigabeetako ur urdinetan erlaxatzea).

Mugikortasun Astea

Irailaren 16tik 24ra bitartean Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatuko da. Hainbat ekintza egingo dira asteen zehar, eta, honi hasiera emateko, Ostegun Bidaiariak egitasmoa lehen kontakizunak irekiko dizkio ateak, opor aktibo baten kontakizunarekin.



XABIER ARENAZA

'IBIZA PIRAGUAN' Irailaren 15ean, eguena, 21:30ean, Ibarraundin. Irla beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera: arrauna hartu eta bertako kala eta bizimodu berezia ikusteko opor aktibo eta desberdina egin zuten 2014. urtean. Ander Agiriano, Manex Agirregabiria eta Xabier Arenaza.



AINITZE LUCERO

'NAMIBIA, BOTSWANA ETA VICTORIA UR-JAUZIAK' Irailaren 22an, eguena, 21:30ean, Zaldibar antzokian. Benetako abentura bizi izan dute aurtengo uztailan Afrikarik basatienean. Paisaia eta safari ederrak, etnia ikusgarriak... Aintzane Lucero eta Gotzone Elordi.



AINITZANE AGIRIANO

'TANZANIA: KILIMANJARO, SAFARIA ETA ZANZIBAR IRLA' Irailaren 29an, eguena, 21:30ean, Huhezín. Tanzaniak asko du bidaiariari eskaintzeko: mendia, sabana, hondartza... Aintzane Agiriano.



JOSEBA ARRESE

Eskoriatzarrak Aubisque

Lau eskoriatzar horiek Espainiako Itzuliko hamalagarren etapaz gozatzen izan ziren Frantziako Pirinioetako mendate horretan: Alex Oiarzabal, Eneko eta Joseba Zubizarreta anaiak eta Joseba Arrese. Sallent de Gallego eta Aubisque arteko joan-etorria egin zuten, 120 kilometro guztira. Aubisqueko helmugan, lasterketaz gozatu zuten, eta talde argazkia atera zuten bertan.

Omenaldia egingo zaie Eskoriatzako erretiratuei Joseba Iñurrategi pilotalekuen

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak Olazar Erretiratuaren Elkartearen laguntzarekin antolatuta, irailaren 25ean, herriko erretiratuek omenaldia jasoko dute. Urtero egiten duten ekimena da, eta egitarau bera izango dute.

Lehenbizi salda hartu eta 12:30ean mezara joango dira. Ondoren, 14:00etan, Auzo Lagunek prestatutako bazkaria izango dute Joseba Iñurrategi pilotalekuan, eta amaitzeko dantzaldia egingo dute. Honekin batera, erretiratuaren elkarteko emakumezko eta gizonezko nagusienek oroigarria eta lore sorta jasoko dute Udalaren partetik. Aurtun, Elena San Vicente eta Pablo Ganboa izango dira oroigarriak jasoko dituztenak.

Zozketa guztien artean

Herriko dendeak, taberneak, banketxeak, enpresek eta Udalak emandako opariak zozketatuko dituzte bazkarira joaten diren guztien artean.

Bazkarira joateko aurrez izena eman behar da erretiratuaren bulegoan, eta egun hauetan eman ahalko da: irailaren 6an, 8an, 13an, 15ean edo 20an, 11:00etatik 12:30etara bitartean, bertan sei euro ordainduz.

Oroimenaren kurtsoa hastear

Bestalde, azken urteotan moduan, memoriaren tailerra egingo dute Olazar elkartekoek. Hala, irailaren 14an hasiko da kurtsoa, eta izena eman nahi duenak elkartean eman behar du. Kuota 15 euro izango da hilerok.



laz, oroigarria jaso zutenak Udaleko ordezkariak. | ESKORIATZAKO UDALA

Euskadi Lagunkoia ekimenari eutsiko dio Udalak

Duela lau urte herri hobe eta erosoagoa lortzeko sortu zen taldearekin elkarlanean jarraituko dute

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA
Udako oporren ostean, 2016-2017 ikasturte berriko lehendabiziko ohiko osoko bilkura egin dute asteon, martitzenean, Antzuola-ko udaletxean. Landutako puntuen artean, Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako udalek osatzen duten Bideberri mankomunitateari aparteko ekarpena onartu zuten. Bestalde, herrian duela lau urte hasitako Euskaldi Lagunkoia proiektuarekiko atxikipena berrestsi zuen udal taldeak.

Herri Lagunkoia

Udalerrri bateko herritarrek euren bizitokiko inguru fisiko eta soziala aztertu eta egin beharreko

moldaketak proposatzea da Euskadi Lagunkoia ekimenaren funtsa. Hala, duela lau urtetik Antzuolan bada horretan diharduen talde bat, nagusiki pertsona erretiratuz osatua.

Orain arte, herrian zeuden beharrak aztertu eta Udalarekin lankidetzan aritu dira herri lagunkoia lortzeko aldera. Hala, atzoko osoko bilkuran udal taldeak aho batez onartu zuen proiektuarekiko atxikipen hori berrestea. Beraz, elkarlanean jarraituko dute aurrerantzean Antzuola Herri Lagunkoia taldearekin.

Talde horrekin batera orain arte landutako proiektuen artean, alkateak nabarmendu du uda



Herriko bankuak txukuntzen dihardute aste honetan. | M.T.

honetan ireki duten Sagasti auzoko ur parke berria: "Beraiek eta guk arlo honetan behar bat zegoela identifikatu genuen, eta hortik abiatuta hasi ginen ur parkearen proiektua lantzen".

Horrez gain, orain, udaleko langileak herriko hainbat banku kendu ditu, konpontzen, margoitzen edota gaizki daudenak alda-

tzen dihardutelako. Horrelakoak proposatzen ere parte hartzen du Herri Lagunkoia taldeak.

Bideberri ekarpena

Bestalde, iraileko bilkuran Bideberri mankomunitateari % 0,7ko aparteko ekarpen ekonomikoa bideratzea onartu zuten aho batez. Antzuola, Elgeta eta Leintz

Gatzaga herrietako udalak batzen ditu 2007an osatutako mankomunitate honek, eta, horren bitartez, aipatutako herrietan gizarte zerbitzuak eskaintzen dituzte. Hala, zerbitzu horien baitan, diru horren zati bat, esate baterako, Antzuolako Anelkar bezalako gobernuz kanpoko erakundeei bideratzen diete.

Kanpaina abian jartzeko batzarra

EH Bilduk deituta, hauteskunde kanpainako planteamendua osatu eta aurrera eraman dute 24 lagunek. Egingo diren ekintzak erabaki eta lanak banatu dituzte. Irailaren 14an egingo da kanpaina ekitaldia Antzuolan.



ANTZUOLAKO EH BILDU

Elkartasun zapore eta doinuek jantzi dute aurten ere Anelkarren festan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurtengo Elkartasun festan antzuolarren borondateak eta elkartasunak ez du hutsik egin. 35 tortilla egin zituzten eta Anelkarrek prestatutako jakiekin 1.284 euro batzea lortu zuten.

Giro paregabea

200 lagun inguru batu zen pasa den egubakoitzean Zurrategi plazan. Giro paregabea lagun,

Kubako dantzak eta jakiak dastatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Antolatzaileek balorazio "oso positiboa" egin dute. Izan ere, batutako dirua Kongon eta Senegalen dauden proiektuak mantendu eta hobetzeko bideratuko dute. "Eskerrik asko tortillak ekarri dituztenei, lagundu duten kubatarrei eta festan parte hartu eta lagundu duten herritarrei".



Zurrategi plaza herritarrez bete zen. | JABI ETXANIZ



GOIENA

32. senidetze festa aurten, Antzuolan

Urriaren 1ean, zapatua, ospatuko da 32. senidetze festa. Aurten, Antzuolan egingo da eta aiertarrei ongietorria egingo diete antzuolarrek. Egitaraua zehaztu gabe dagoen arren, tradizio den gaubeila ez da faltako.

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

OHARRAK

HELDUENDAKO INGELESA

Helduen heziketako ingeles eskolak (EPA) irailaren 20an hasiko dira. Olarango ekintza aretoan izango dira, martitzenean eta eguenetan, 15:00etatik 16:30era bitartean. Izena eman nahi duenak Bergarako Irizar jauregian egin beharko du.

KZGUNeko KONTAKTUA

Kzguneko dinamizatzailea Leire Txintxurreta da. Kontakturako: 944 033 340 edo tutor.elorrio@kzgunea.net.



Kubako gastronomia dastatzeko aukera izan zen. | JABI ETXANIZ



San Martin eskolako ikasturteko lehen egunean. | XABI GOROSTIDI

Eskolan irakasle eta gela gutxiago izango dituzte

- ▶ Tutoreak eta errefortzurako baliabideak gutxitu egin dira
- ▶ Ikasleei dagokienez, Haur Hezkuntzako bi gela bateratu egingo dituzte

XABI GOROSTIDI | ARAMAIO
Iazko ikasturte amaierako aurreikuspenak bete dira eta Aramaio-ko San Martin Eskolak iaz baino irakasle gutxiago izango ditu 2016-2017 ikasturtean.

Eli Izagirre eskolako zuzendariak salatu duenez Eusko Jaur-

laritzako Hezkuntza Sailak ondorengo aldaketak egin ditu. "Irakasleen aldetik kopurua jaitsi egin dute: tutore gutxiago, laguntza eta errefortzuak emateko irakasle gutxiago, eta eskolako kudeaketa eta proiektuetarako irakasleen orduak jaitsi dituzte.

Ikasleen aldetik, aldiz, Haur Hezkuntzan bi gela elkartu dituzte". Konkretuki Haur Hezkuntzako hiru eta lau urteko gelak bateratu egin dituzte, hamazortzi haurreko taldea osatuz. Gela bat hutsik geratzen zela ikusirik, talde horrentzat aisialdi eta sozia-

lizaziorako ekintzak egiteko gela egokitu dute.

Esker oneko hitzak
Aurtengo ikasturtean aldaketak heltzeko aukera zegoela ikusita, eskolak, gurasoek eta Aramaioko Udalak alegazioak jarri zituzten. Emandako babes horrengatik esker oneko hitzak izan dituzte eskolako ordezkariak:

"Eskolak, gurasoek eta Udalak ahalegin handiak egin dituzte egoera hau saihesteko eta hobetzeko. Denon artean egindako alegazio, idatzi eta deien bitartez hobekuntza bat izan dugu, baina ez nahi genuena. Hemendik, berriz ere, eskerrak eman nahi dizkiegu ahalegin horretan parte hartu duten guztiei".

Zailtasunak zailtasun, Aramaioko San Martin Eskola osatzen duen lan-taldeak bere konpromisoa azaldu nahi izan du ikasleei ahalik eta hezkuntza maila onena emateko: "Bukatzeko, esan behar dugu eskolako irakasleen aldetik, bai uztailaren eta baita iraileko lehen egun hauetan ere, interes eta ilusio handiarekin ari garela gure artean koordinaturik, ikasturte berrirako espazioak, programazioak, materialak prestatzen eta ikasleek merezi duten harrera onena egokitzen", adierazi du zuzendariak.

Komunak konponduta
Bestalde, uztailaren 20an hasi zituzten eskolako komunak konpontzeko lanak eta ikasturte berria hasi aurretik bukatu dituzte.



XABI GOROSTIDI

25 odol emaile astelehenean

Astelehen arratsaldean odol emaileen autobusak geldialdia egin zuen Aramaioko parkean. Bisitaren arduradunek parte hartzeko deia zabaldu zuten, ospitaleetan dagoen odol eskariak gora egin duelako, egunean ia 500 odol emate behar izateraino. 25 lagun gerturatu ziren odola ematera eta euretako 22ri hartu zieten odola.

Ekintza ugarirekin ospatuko dute domekan aurtengo Andra Mari eguna

X.G. | ARAMAIO
Ibabe-ko Andra Mari Kofradiak badaukate zer ospatu domeka honetan.

Andra Mari eguna dela-eta egitarau berezia prestatu dute kofradiako kideek.

Ekintzak goizean
Eguna indarrarekin hasteko, 11:00etan salda dastaketa egon-

go da. Behin sabelak berotu ondoren, mezaren txanda izango da, 12:30ean, eta bertan, Aramaioko Bizente Goikoetxea abesbatzakoek kantaldia eskainiko dute.

Herriko abesbatzaren erakustaldiaren ostean, batzar orokorra egingo dute, 12:45ean, eta 14:30ean bazkaltzeko elkartuko dira.

Moonshine Wagon, Sastiñako kontzertuen hurrengo geltokia

X.G. | ARAMAIO
Sastiñako kontzertuek euren bidea jarraitzen dute eta egubakoitz honetan izango da beste emanaldi bat.

Moonshine Wagon probintziakideak izango dira Sastiñako bazterrak girotuko dituztenak. Talde gasteiztarrak hiru urte daramatza country eta folk doinuak maisuki lantzen.

Joel Bruñak eta Unai Marcosek sortu zuten taldea eta ondoren Goiatz Dutto biolinista batu zuten. Behin hirukote formatua finkatuta, euren soinuari forma ematen hasi ziren. Sustrai amerikarrak barruraino sartuta dituen taldea da eta hori nabaria da

euren abestietan eta influentzietan ere. 2015ean *Folk You* izeneko lehen lana kaleratu zuten, eta hango abestiak eskainiko dituzte Sastiñako ikusleen aurrean.

19:30ean hasita, aukera paregabea begiak itxi eta Far West-eko film baten bezala sentitzeko.

Hiru kontzertu gehiago
Iraileko Sastiñako kontzertuen zikloari beste hiru ekitaldi faltako zaizkio gasteiztarren bisitaren ondoren: irailaren 16an Twin Room taldearen vintage musika, irailaren 23an Big Easy Band taldearen jazz eta swing doinuak eta irailaren 30ean Diablu & Bluecifer bergagarrik.



Gasteizko Moonshine Wagon taldea. | MOONSHINE WAGON

NIRE USTEZ



XABI
IGOA

Ereduak

Umeei kirolari gogokoenaren inguruan galdetuz gero, askoren ahotan entzungo genituzke Messi zein Cristiano-ren izen-abizen, zapatila modelo, kotxe kopuru eta abarrak.

Tamalez, bi horiek edo antzeko beste batzuk dira ume askoren eredu, hauek eredugarri ez izanagatik ere.

Lau urtean behingo zita bat bada, hein txiki batean, kirol egunkarietako azaletatik, eta gizartearen ahotsetik alde batera uzten dituen: Joko Olinpikoak.

Horren ohiko ez diren kirolak indartzeko ere balio beharko lukeen "ikuskizunak", Rioko edizio honetan tamalez, gure gizartearen itsukeria agerian utzi du. Eta agerian utzi izana bera da alderdi positiboena, hobetzeko aukera dagoela erakusten digulako horrek.

Bai, generoaz ari naiz. Urrunera joan gabe, astean ere, izan da halakorik gurean, eta bestela alderatu hurrengo bi izenburu hauek: "San Juan eta Hibaikak maila bikaina erakutsi dute lehen jardunaldian" da lehena. "Urdaibai izan da nagusi Kontxako lehen jardunaldian, bi segundo eskas- sen aldearekin", aldiz, bigarrena.

Bi aukera atzematen ditut: arraunean dabiltzanak gisa, zentzu metaforikoan, betiere, nora doazen ikusi gabe patroia- ren esanetara aurrera egitea, ala Maialen Chorr- aut eredu harturik, geu izatea gure palada bakoitzaren erantzule, ur nahasitan bada ere. Ama eta kirolari profesionala.

"Ur nahasitan ere palada bakoitzaren erantzule izan behar dugu"

Julen Olaizola Gatzagako binakako txapelketan irabazle

Aramaiotar gazteak lan bikaina egin zuen pasa den aste- buruko Gatzagako pilota txapelketan.

Hain zuzen ere, Lizarrako Borja Berruetekin osatu zuen bikotea, eta, lan aparta eginez, finala irabaztea lortu zuten. Norgehiagoka parekatua izan zen, baina, azkenean, 18-15 irabazi zioten Azpeitiko biko- teari.

119 neska-mutikorekin martxan da ikasturte berria Herri Eskolan

Zortzi ikas talde eta hamabost irakasle ditu aurten Elgetako ikastetxeak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Herri Eskolan atzo, eguaztena, eman zioten hasiera 2016-2017 ikasturteari. Neska-mutiko gehienak txirrina jotzeko zain egon ziren ikastetxe atarian edo eskailera hasieran, eta irakasleek lagunduta egin zuten ikasgelarako bidea. Ikasturte hasiera samurra izan dute ikasleek. Bihar, barikua, jai da eta lehenengo bi egunetan jardunal-di trinkoa egin dute, 13:00ak arte.

Zuzendaritzatik emandako datuen arabera ikasturte honetan 119 neska-mutiko hartuko ditu Elgetako ikastetxeak. Zortzi unitate edo ikas talde izango ditu eskolak: lau haur hezkuntzan eta lau lehen hezkuntzan.

Eskolaratze berriei dagokienez, bederatzia umek eman dute izena bi urteko gelan sartzeko. Astelehenean, hilak 12, hasiko dira egokitzapenarekin.



Ikasturteko lehen eguna, atzo, Herri Eskolan. | L.Z.

Haurreskola ere martxan

Elgetako haurreskolako umeek martitzenean eman zioten hasiera ikasturteari. Zortzi erabiltzaile ditu zerbitzuak, eta, kasu honetan ere, egokitzapena egiten ari dira. Hezitzaileak bi dira.

Ludoteka eta zaintza

Udalak astelehenean, hilak 12, ipiniko ditu martxan bi zerbitzuak. Izen-ematea zabalik da udaletxean. Ludoteka zerbitzuaren prezioa da 30 euro hileko eta zaintzarena 90 euro hileko.

Euskaltzaleen Egunari forma ematen

L.Z. | ELGETA

Euskaltzaleen Eguna iragarri du irailaren 24rako Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak. Elgetan ere euskararen egoerak zer pentsatua ematen duela uste dute, eta festa giroa baliatu gura dute mezua herritarren artean zabaltzeko. Hamar lagun elkartu ziren astelehenean egindako lehen bileran, eta bat etorri ziren hainbat kontutan: "Eremu formalean nahiko babestuta ikusten dut euskara; eremu ez formalean —kalean, tabernan...— ez", esan zuen batek. "Nerabeengana iritsi beharko genuke, baina nola?", beste batek. "Garrantzitsua litzateke baita ere euskaldunak ez direnengana iristea", esan zuen hirugarren batek.



Euskaltzaleen Eguna prestatzeko astelehenean egindako bilera. | L.Z.

Irailaren 24rako, oraingoz, bazkaria eta Egan taldearen erro-meria iragarri dituzte. Eguerdian

ekitaldi bat egin gura dute euskararen transmisioa irudikatze-ko, eta forma eman behar zaio.

Herritarren ekarpenak jaso gura dituzte emakumeekiko jazarpena salatze-ko

L.Z. | ELGETA

Azaroaren 25era begira ongi-zate sailak herritarrekin batera antolatu gura ditu Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egune-ko ekintzak. "Iaz ekarpen politak jaso genituen, eta garrantzitsua da herritarren parte-hartzea", esan du Naiara Unamuno teknikariak. Aurreko urtean eta elkarreta-

ratze isilarekin batera arte instalazioa egin zuten Elgetan herritarrek laga eta gorritz mar-gotutako 40 zapata parerekin. Martxoaren 8arekin lotuta, berriz, lasterketa bat antolatu zuten eta hogeik birotek hartu zuten parte. Ekarpene-ko jaso-tzeko batzarra deitu du Udalak hilaren 15erako. Udaletxean egingo dute, 18:00etan.

Izendatuta daude irailaren 25eko hauteskunde egunean mahaian egongo diren herritar-ak

Marta Tejero da mahaiburua, eta Jose Angel Perez eta Mari Carmen Larrañaga dira lehen eta bigarren bokalak. Mahaiburuaren orde-zkoak dira Josu de Vega eta David Palacios. Lehen bokalaren orde-zkoak, berriz, Maria Soledad Linares eta Nerea Sarasua. Azkenik, bigarren bokalaren orde-zkoak dira Nerea Aranguren eta Maria Mercedes Olaortua.

Astelehenetik aurrera neguko ohiko ordutegia izango du atzera ere udal liburutegi zerbitzuak

Abuztuko etenaldiaren ostean, aste honetan zabaldu ditu ateak liburutegiak, eta udako ordutegia izan du zerbitzuak. Astelehenetik aurrera, ordea, ohiko ordutegira itzuliko da: astelehenetik eguenera 16:30etik 20:00etara eta barikuetan eta jai bezperetan 14:30etik 17:30era. Uztaileko mailegu zerbitzuarekin lotutako zozketaren irabazlea Aizpea Uribe izan da.

Elgetako baserritarrek astelehenera arteko epea dute hilaren 17ko azokan izena emateko

Aurten ere herriko produktuekin egindako azoka antolatu dute Elgetan, eta iraileko hirugarren zapatuan, hilaren 17an, egingo dute. Salmenta postua ipintzeko interesa duten baserritarrek astelehen eguerdira arteko epea dute udaletxean izena emateko. Azoka ostean, Maialde jatetxean izango dute bazkaria azokan izan diren baserritarrek.

OHARRAK

GARBIGUNE IBILTARIA

Debagoieneko Mankomunitatearen garbigune ibiltaria Salbador kaleko plazan izango da eguaztenean, hilak 14, 10:00etatik 21:00etara.

BASOGINTZA

Basoak zaintzeko, hobetzeko eta ugaritzeko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik da hilaren 30era arte, udaletxean edo Bergarako nekazaritza bulegoan.

LEINTZ GATZAGA

Criminal Remains taldea, gertutik

Disko berriaren grabaketan buru-belarri aritu dira udan eta herriko jaietan kontzertua eskainiko dute

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

Walking on the same old road. Izen horrekin aurkeztuko du disko berria hemendik gutxira Criminal Remains taldeak. "Historia zahar eta luze baten arrasto kriminalak bizirik daude eta bide horretan gaude oraindik. Hori da taldearen zein diskoaren izenarekin transmititu nahi duguna", adierazi du Beñat Agirreurreta taldekide gatzagar-ak. Hiru urte da taldea sortu zela, baina

orain arteko lehen lana da aurkezttera doazen hau. "Lehenengo urteetan, gauza bat dela edo bestea dela, ez genuen gauza handirik egin eta uda honetan diskoa grabatzeko momentua zela erabaki genuen", dio.

Zortzi abestiz osatutako disko-ko izango da, horietatik lau ingelesez eta beste lau euskaraz. "Euskarazko bat Nealta Fola talde aretxabaletarrarena da. Hasi ginenean lokala utzi ziguten eta



Criminal Remains taldea. | GOIENAO

diskoaren grabaketan ere asko lagundu digute; beraz, omenaldi txiki hau egin nahi izan diegu", azaldu du Agirreurretak.

Horrela, Gatzagan eskainiko duten kontzertuan disko berri-ko

zortzi abestiak joko dituzte eta beste lau bertsio gehiago ere joko dituzte, kontzertua osatzeko.

Musikari dagokionez, "punk-rock azkarra" lantzen dutela nabarmendu du Agirreurretak.

Udan, geld

Denbora dezente igaro da azken kontzertua eskaini zutenetik. "Disko berriaren grabaketan zen-tratu nahi izan dugu uda honetan. Bestalde, abesti gutxi ditugu, eta, kontzertu asko eskainita, jendea aspertzeko aukera ere bazegoen, baita gu geu ere. Beraz, geldial-ditxo bat egitea erabaki genuen", onartu du. Gaineratu du diskoa argitaratzeko "gogo handia" dute-la, baita Leintz Gatzagako kontzerturako ere.

Bi gatzagar

Bost pertsonak osatutako taldea da Criminal Remains. Hiru aretxabaletar: Jon Zugasti bateria, Ibai Iregi baxua eta ahotsak eta Dani Sanchez ahots nagusia. Eta bi gatzagar: Jose Ayudarte eta Beñat Agirreurreta; biak ala biak, gitarra eta ahotsak.

FUTBOLA



Amaiak Bateko kapitaina, Beñat Etxabe (UDA) eta Ander Ruiz de Azua (Mondra), Arrasate Hirian. | IMANOL SORIANO

Ohorezko erregionalean liga hasiko dute Mondrak, UDAk eta Aloña Mendik

Oñatiko taldeak bakarrik jokatu du etxean, Real Unionen kontra, domekan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Amaitu dira lagunartekoak, jokari berriak ezagutzeko entrenamendu saioak, eta hasierako hamaikakoak definitzeko zalan-tzak, Ohorezko Erregionalean hastera doa liga. Hala, ibarrekoen artean iaz Oñatiko taldeak bakarrik lehiatu behar izan zuen kategorian horretan, baina aurten beste bi bidelagun –eta kontra-

rio– izango ditu, mailaz jaitsi den UDA eta mailaz igo den Mondra. Joan den zapatuan Arrasate Hirian eta Jose Luis Agirrerren omenezkoan ikusitakoaren ondoren, baliteke UDA orain momentuan pauso bat aurretik egotea, eta normala ere bada, iaztik jokalaria askok jarraitzen dute-eta taldean. Baina, ligak bakoitza dago-kion tokian jarriko du.

Aloña Mendik etxean

Aurreratu moduan, Aloña Mendik da etxean jokatu duen bakarra, Real Unionen kontra, domekan. Aretxabaletak eta Mondrak, berriz, kanpoan jokatu dute lehen jardunaldia. Iñigo Velez de Mendizabalen UDAk Lesakan, eta Zubiaren Mondrak Elgoibarraren. **(albistea ordutegiekin osatuko)**

AUTOMOBILISMOA

4x4ko trialak ikuskizuna eramango du Apotzagara

Zapatuan 15:00etan hasiko dute proba

X.U. | BERGARA

Bihar Eskoriatzako Apotzaga auzoan triala egin ahal izateko, gaur, egubakoitza, antolatzaileek lan dezente izango dute aurretik: "Zortzi bat zona prestatu gura ditugu, eta egubakoitzean egingo dugu lan hori", adierazi du Xabi Oñederrak.



Iazko triala, Apotzagan. | GOIENA

25 pilotu inguru

Lokatz falta izango da biharko trialaren ezaugarrietako bat: "Nik gurago dut horrela, pilotuen teknika hor geratzen delako agerian. Lokatz asko dagoen ez dago askorik egiterik, baina ikusleei horixe gustatzen

zaie, autoak putzu batetik irten ezinka ikustea". Guztira 25 auto inguru batuko dituzte, eta erdiak izango dira bailarakoak.

MENDIKO BIZIKLETA

Eskaintza bikoitza asteburuan: Arantzazun eta Leintz Gatzagan egingo dituzte martxak

X.U. | ARRASATE

Etxean bertan, mendi bizikletan ibiltzeko aukera paregabea izango dute ziklistek zapatuan eta domekan, Arantzazun eta Leintz Gatzagan. Arantzazukoa zapatuan (09:00) egingo dute, Auzoetxan –Oñati eta Arantzazu artean, Arantzazuko basilika baino 3 km lehenago–, eta 37

kilometroko ibilbidea prestatu dute (1.440 metroko desnibela).

Gatzagan domekan

Gatzagako martxa ere goizeko bederatzietan hasiko dute, baina ordu horretan helduak irten-go dira, 10:00etan gaztetxoendako beste irteera bat prestatu dute eta.

MondragonLinguan, beste era batera egiten dugu dena, gure programa desberdina da, gure metodologia ere bai. Gure klaseak desberdinak dira, eta, agerikoa denez, **gure emaitzak ere desberdinak dira.**

mondragonLingua

Hizkuntzak funtsezkoak dira dagoeneko gure bizitzan. Horregatik, MondragonLinguak pertsonaia garrantzitsuekin antolatutako TAILERRETAN ETA TOPAKETETAN parte hartzea gonbidatzen zaitu, praktikatzeko eta haien esperientzia profesionalak eta pertsonalak entzuteko.

Aste honetan, Arrasate eta Oñatiko zentroetan:

DIY: Print your own T-shirt.
Kamisetak diseinatzeko tailerra. (5-10 urte)
Oñati (Irailak 12, astelehena), Arrasate (Irailak 13, asteartea), 19:00etan.

STORYTELLING: Around the world in 60 minutes.
Ipuin-kontalaritzako tailerra.
Arrasate (Irailak 12, astelehena), 19:00etan.

Learning with the iPad as a family.
(SICOS) Mintegia gurasoei zein seme-alabei zuzenduta.
Oñati (Irailak 13, asteartea), 19:00etan.

English: nahi duzun neurri eta doinuan
IZARO ANDRES, KANTAUTOREA
Arrasate (Irailak 15, osteguna), 19:00etan.

Eta gainera...
Urriaren 21a baino lehen matrikulatzen bazara, bi pertsonarentzako **asteburu bat irabaz dezakezu** Londresen, Baztanen edo Hondarribian.*

* mIPLUS edo mIADAPTA ikastaroan matrikulatzen diren ikasleentzat. Kontsultatu baldintzak.

ZATOZ GURE TAILERRETARA ETA TOPAKETETARA:
OPARI BAT ZOZKETATUKO DA BERTARATU DIRENEN ARTEAN
PLAZA MUGATUAK.
Informa zaitetz zure zentroan:

ARRASATE
Araba etorb, 4. Tel. 943 71 20 55

OÑATI
Motxon, 7. Tel. 943 71 60 00

- Doakoak
- Dibertigarriak eta hezigarriak
- Maila eta adin guztietarako
- Publiko guztiari irekita

TXIRRINDULARITZA



Markel Uriarte errekorra lortzeko erabilitako bizikleta altxatzen, pozik. | ARITZ GORDO



Lagunak eta senideak Uriarte animatzen, harmailetan. | A.G.



Errubera bakarrean, belodromoari bueltaka. | A.G.



Uriarte Anoetan, atzetik. | A.G.



Komunikabideen eta jarraitzaileen begiradapean. | A.G.

Ordubetea 29,94 kilometro: Guinness errekorra du Uriartek


XABIER URZELAI | DONOSTIA

Lehenagotik bazekien posible zela, urduritasunak baztertu eta kontzentrazioari ordubetea ondo eutsita Manuel Scheidegger suitzarrak gupil bakarraren gainean zuen marka ondu zezakeela (25.72 km). Eta Markel Uriartek lortu du helburua (29,94 km) egin zituen ordubetea Anoetako belodromoan, atzo, eguena. Horrela, Tourmaleta gupil bakarraren gainean

igo eta jaisteaz batera, atzotik Aretxabaletakoa da munduko azkarrena *caballitoa* egiten.

15:40ean hasi zuen erronka. Kanpoan bero itogarria egiten zuen, baina belodromoan uste baino hobeto egoten zen; hala ere, ordubetea ez du hidratatzeko aukerarik izan. Ez zuen behar, azken asteotan izandako enduro lasterketetan gorputzaldi oso onean dagoela erakutsi duelako.

Bada, sasoiari etekina aterata, kontzentrazioari eutsita, eta lagunak eta etxeko bultzadarekin Uriartek Guinness errekorra ondu du. Lehenengo itzuliak indartsu hasi zituen, 32 kilometro ordura, baina normalez, nekea igartzen joan eta azken minutuetan erritmoa apur bat moteldu zuen; hala ere, birrindu egin du errekorra. Hurrengoak buruan dauka jada, Santiagoko Bidea egitea; noski, *caballitoa*.



Tinko eutsi beharra izan zion errubera bakarrean ibiltzeko.



Uriarteren GPSa. | XABI URTZELAI



Gurutze Urrutia amaren besarkada jasotzen, lorpenaren ondoren. | ARITZ GORDO



Kanboko Arnaga Etxeko lorategian dagoen Iñigo Arregiren eskultura bat. | JAIONE ISAZELAIA

Iñigo Arregi arrasatearraren eskulturak Kanbon ikusgai

Urriaren 16ra arte Lapurdiko Arnaga Etxean daude

KOMUNITATEA GOIENA | JAIONE ISAZELAIA
| BERGARA

Oporrei bukaera emateko Iparraldean, Kanbon, dagoen arte erakusketa bisitatu genuen. Bertan, Arnaga jauregiko paraje ikusgarrian, hiru artista euskaldunen artelanak daude ikusgai: Etxebarria, Sistiaga eta Iñigo Arregi arrasatearrarenak.

Arnagak lorategi ikusgarriak ditu –Versalles euskalduna esaten diote-, zuhaitz erraldoiak eta euskal estilora egindako jauregia. Etxea eta ingurukoak Edmon Rostand poeta frantse-



Arnaga Etxeko lorategi ikusgarria. | J.I.

saren jabegokoak ziren. Pleuresiak jota etorri zen Edmond Paristik Euskal Herrira; inguruaz maitemindu eta etxea eta inguruko lorategiak eraiki zituen. Bertan, besteak beste, *Cyrano de Bergerac* obra fama-tua idatzi zuen.

Inguru honetan jarri dituzte Hego Euskal Herriko hiru artisten obrak. Sistiagaren margolan bikainak etxean eta lorategiko eraikin baten daude, Etxebarriarenak, zuhaitz artean, eta Iñigo Arregi arrasatearraren gehienak, berriz, jauregi aurreko lorategian kokatzen dira. 25 eskulturatik gora ditu Arregik bertan. Nekez irudikatu daiteke artelan hauentzat sinbiosi ego-kiagorik, lorategiaren simetria perfektua eta eskulturen asimetria ausartak.

Plan aparta, irailerako.

Manu Gallardo | Ozenki elkarteko kidea

"Azpiegitura aldetik zailtasun asko dituen arren, handienetako bat"

Rosinaren eta Almaguira kondearen maitasun istorioa kontatzen duen opera Arrasaten laster

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Urriaren 18an, Gioachino Rossini-ren *Sevillako bizargina* opera ikusteko aukera izango da Amaia Antzokian, Ozenki elkartearen eskutik. Sarrerak 30 eurotan eskura daitezke: Amaia antzokiko leihatilan, *Arrasate.eus* eta *Kutxabank.es* atarietan, eta elkarteko kideen bitartez ere bai, *ozenkielkartea@hotmail.es* helbidera idatzita.

Oraingoan eresarrerak di-da baten saltzen ari zarete.

Domekan jarri genituen salgai eta dagoeneko edukieraren erdia baino gehiago agortuta dago. Oraindik oporretan dauden ohiko ikusleen eskaera asko jasotzen ari gara.

Zergatik aukeratu duzue opera hori?

Aspaldi Arrasatera ekartzeko gogoan genuen. Zale gehienentzako handienetako bat da, baina azpiegitura handia eskatzen du du, eta hortxe zailtasuna. Maiatzean Bilboko ABAO elkar-teak Euskaldunen taularatu zuen obra hori, eta orduan lotu genituen Arrasatera etorriko diren artista gehienak.

Izen handiko abeslariak, beraz.

Halaxe da, bai. Protagonisten roletan hauek daude: Marife Nogales (mezzo-sopranoa) Rosina izango da; Bartoloren azalean, Alberto Arrabal; Figaro, Vale-



Manu Gallardo. | M.G.

ciano Arturo Pastor (baritonoa); Pablo Antonio Martin (tenorea) Almaguira Kondea izango da; eta Jose Antonio Garcia kanariarra, Basilio. Horiekin batera Donostiako Orkestra lirikoa eta Sasibill abesbatza izango dira.

Zelako obra da?

Bi ekitalditan banatuta dagoen opera bufoa edo komikoa da. Musika arloko komediarik garrantzitsuena izan da historian zehar. Nola ez, maitasun istorio bat du oinarri, eta abesti oso ezagunak batzen ditu; obertura, horien artean.

Zer diozu autoreari buruz?

Oso emankorra zen, urtean gutxienez pare bat opera idazten zituen. Honako hau hamahiru egunetan egin zuela zioen.

Merezitako omenaldia eta tokia etxeko lau artistari Gandiaga Topagunean

'Arantzazuko arte-lantegia' bilduma, urriaren 16 arte, asteburuetan eta jaiegunetan ikus daiteke

J.I./A.A. | OÑATI

Xabier Alvarez de Eulateren, Jose Luis Iriondoren, Juan Arriolaren eta Xabier Egañaren pinturak, marrazkiak eta eskulturak jasotzen dituen *Arantzazuko arte-lantegia* izeneko erakusketa zabaldu zuten egubakoitzean, Arantzazuko Gandiaga Topagunean.

Artista berritzaileak

Frantziskotar zirela -laurek aldi berean bat ez egin arren-, Arantzazun lanean ari ziren, besteak beste, Oteiza, Txillida eta Basterretxea artisten eragina izan zuten euren obran. "Ez dira obra ezagunak, baina momentu historiko batzuetan, historialariok

uste dugu aurreratu ere egin zitzaizkiela artista handitzat ditugun beste batzuei. Bakoitzak berea egin zuen edo egin duen arren, komunean hainbat gauza dituzte", azaldu du Edorta Kortadik, erakusketako komisarioak. "Bazen jendea ikastea baino nahiago zuena beste gauza batzuk egitea. *Katxarrero* samarrak ziren, baina, pixka bat, artea egiten zuten", gaineratu du Iñaki Beristain frantziskotarrak.

Lau sortzaile, lau estilo

Egañaren errealismo soziala; Arriolaren surrealismoa eta konstruktibismoa; Jose Luis Iriondoren marrazkiak eta karikaturrak eta Eulateren paisaiak eta

abstrakzioa. Horiek guztiak batu dituzte garai baten Seminarioko ikasgela izan zuten tokian.

Arantzazuko Adiskideak elkar-teak, Arantzazu Gaur Fundazioak eta Arantzazuko frantziskotarrek antolatutako erakusketa egubakoitzean inauguratu zuten, eta hantxe ziren bizirik dauden bi artistak: Juan Arriola eta Xabier Egaña. Askotariko objektu eta gauzei bigarren erabilera bat emanez egindako eskulturak erakutsi ditu Arriolak. Egaña, oster, askotariko materialiaz uztarturiko pinturak. Eulatek beragan izan zuen garrantzia azpimarratu zuen hark utzitako Picassoren liburuek ireki zizkiotelako arte modernorako bidea.

"Horrelako erakusketarik ez dugu sekula egin" esan zuen Iñaki Beristainek, eta zera gaineratu: "Alvarez de Eulate izan da orain arte aitortuena; lehenago ere erakutsi ditugu haren lanak. Iriondoren lana, berriz, ez da orain arte merezi beste ezagutarazi, Iriondok berak ez zion-eta baliorik ematen egiten zuenari".



Xabier Egaña margolaria ikusle bati azalpenak ematen. | JULEN IRIONDO



Juan Arriola eskultorea, haren lan bat aldamenean duela. | J.I.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Bi logeladun 70 metro koadroko etxebizitza salgai Martokuan. Igogailua eta trasteleku handiarekin. Berritua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 20 08 16

